

# puntuatua



Arantxa Urretabizkaia

**"Emakumeok gauza asko  
ez ditugu egiten  
ausartzen ez garelako"**



## PUNTUA 152

2018-06-01 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkiaren egilea:  
Xabier Urzelai.

### Aurkibidea

- |    |                                                                                               |    |                                                                                              |
|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------|----|----------------------------------------------------------------------------------------------|
| 4  | <b>Bat-batean</b> Arantza Ruiz                                                                | 42 | <b>Gure altxorrak</b> Aretxabaleta:<br>Areantza baseliza txukuna                             |
| 6  | <b>Irudiz</b> Dantzen doinu                                                                   | 45 | <b>Gadgetmania</b>                                                                           |
| 8  | <b>Erreportajea</b><br>Ohitura berriak, kulturara                                             | 46 | <b>Handitzen, handitzen</b><br>Jolasa: <i>Laranja pasa</i>                                   |
| 20 | <b>Elkarriketa</b><br>Arantza Urretabizkaia, idazlea                                          | 47 | <b>Jaioberriak</b>                                                                           |
| 24 | <b>Osasuna</b> Loa haurtzaroan                                                                |    | IRITZIA                                                                                      |
| 26 | <b>Kirola</b> Ibilaldia: Marixeka-Albina<br>urtegia-Marixeka                                  | 3  | <b>Nire txanda</b><br>Nestor Arana Arexolaleiba<br><i>1943-2018</i>                          |
| 28 | <b>Adituen esanetan</b><br>Denbora umeen heziketan                                            | 16 | <b>Hainbat aburu</b><br>Naroa Elortza Gorrotxategi<br><i>Goitik behera ala behetik gora?</i> |
| 30 | <b>Otorduan</b> Tartufo jatebhea:<br>askotariko entsaladak                                    | 16 | <b>Eztabaida</b> Homeopatia farmazietan                                                      |
| 32 | <b>Moda</b> Eguzkitako betaurrekoak                                                           | 17 | <b>Xixili</b> Helena Azkarragaurizar                                                         |
| 34 | <b>Motorra</b> Autoa freskatzeko gakoak                                                       | 17 | <b>Errematea</b><br>Xabier Mugartza <i>Askatasun<br/>inposatua</i>                           |
| 36 | <b>Gure artistak</b><br>Ane Ugarteburu elgetarra                                              | 18 | <b>Talaiatik</b> Joxemari Izeta<br><i>Hitzartu: hitz eginez, adostasuner</i>                 |
| 38 | <b>Kultura</b> <i>Gure oroitzapenak:</i><br>Sarrionandiaren idatzietan<br>oinarritutako filma | 44 | <b>Komunikazioa</b><br>Oihan Vega <i>Hitzaren balioa</i>                                     |
| 40 | <b>Liburu artean</b><br><i>Amets egiteko ipuinak 1, 2, 3</i>                                  |    |                                                                                              |

puntua

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Aitor Izagirre  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal  
**Zuzendaria**  
Eneko Azkarate

**Erredaktore burua**  
Monika Belastegi  
**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate  
**Publizitate arduraduna**  
Mireia Larrañaga  
**Kluba eta banaketa**  
Marta Leturia

**Maketazioa**  
Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza  
**Administrazioa**  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar,  
Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943-25 05 05  
Faxa: 943-25 05 00  
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943-25 05 05  
Faxa: 943-25 05 00  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943-25 05 05  
harpidetza@goiena.eus  
**Lege Gordailua:**  
SS-1509-2014  
**ISSN:** 2443-9738  
**Tirada:** 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

# 1943-2018



NESTOR ARANA AREXOLALEIBA

**1** 943tik hona, 75 urte pasatu dira Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren haziak erein zirenetik. Harrigarria da Jose Maria Arizmendiarretak (1915-1976) bultzatutako ideiek eragin duten eraldaketa. Eta are harrigarriagoa da ideia haiek bizirik irauten dutela ikustea. Ordudanik balio aldaketak eta zailtasun mingarriak egon direnik ezin da ukatu, baina kooperatibaren filosofiarekin inoiz baino lanpostu gehiago dagoela aitortu beharra dago.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, hezkuntzaren bidez, gizartean transformazioa eragiteko sortu zen: "Hezkuntza helduleku natural eta ezinbestekoa da ordena sozial, humano eta justu berri bat sustatzeko". Eta asmo horrekin jarraitzen du gaur egun ere; horretarako, une oro, egoera berrietara egokitu behar izan du. Bertan lan egiten dutenek esango dizute instituzio horretan konstante mantentzen den gauza bakarra aldaketa dela.

2018an gizartean eta enpresetan bizi dugun egoera 1943an zegoenaren ezberdina da. Ez naiz ausartzen egoera konplexuagoa dela esatera, baina aldakorragoa da; likidoa dela esaten zuen Zygmunt Bauman irakasleak (1925-2017). Horregatik, ikasketa teknikoak ere asko aldatu dira 1952an Zaragozako unibertsitatean Arrasateko lehen peritu industrialak diplomatu zirenetik. Gaur egun, eduki teknikoez eta teorikoez gain, hizkuntzak, ikerketak eta talde-lanak sekula baino indar handiagoa dute hezkuntza prozesuan.

Baina ez dugu ahaztu behar inoiz izan ditugun erronka handienen aurrean gaudela: aldaketa klimatikoa, gizartearen zahartzea, desoreka ekonomikoa eta energia, besteak beste. Horregatik, hezkuntza metodologiak egokitzen jarraitu behar dugula pentsatzen dut. Ingeniariaren kasuan, aipaturiko erronka sozialak ere kontuan hartu behar ditugula gehituko nuke. Horrela egingo diegu aurre Nazio Batuek garapen jasangarria bultzatzeko definitu dituzten hamazazpi helburuei.

Horregatik defendatzen dut kooperazioan, sormenean, pentsamendu kritikoan, konfiantzan, ikerketan, entzutean... oinarritutako hezkuntza sistema batek erronka berrietara egokitzen lagunduko digula. Badakit hitz utopikoak ematen dutela; batzuek esaten didate horrelakorik Finlandian bakarrik lortu daitekeela, gure kultura ezberdina dela... baina "ez dago erein gabeko uztarik". Jose Maria Arizmendiarretak bere haziak erein zituen; guk nolako haziak erein nahi dugu? ■■■

**EZ NAIZ AUSARTZEN  
EGOERA  
KONPLEXUAGOA DELA  
ESATERA, BAINA  
ALDAKORRAGOA DA**

# Arantza Ruiz

---

## TXOMIN MADINA

---

ARGAZKIA: EITB

---

Urteetan Radio Euskadiko ahotsetako bat izan ostean, egun, 360° *Tú decides* saioaren gidarietako bat da kazetari bizkaitarra.

**Gaurkotasun aldetik udaberria izaten ari den modukoa izanda, ez da erraza izango saioan zer landu eta zer ez erabakitzea...** Ez da erabaki erraza, ez. Baina *input*-en bidez funtzionatzen dugu: programa soziala da, ostiralero 50 herritarrekin egiten duguna, eta horrek aukera ematen digu kalean, edo etxeetan, kezka zein gaik sortzen duten jakiteko. Egia da egunerokoan politikak pisu handia duela hedabideetan, baina etxean afalorduan hizketan zaudenean edo lagunekin zaudenean konturatzen zara zein gaik duten interesa; gida ona izaten da hori guretzat. **Saioan herritar arrunten artean ikusten zaitugu. Zenbat ikasi duzu haiengandik?** Askok, saioak balio duelako zu edo ni bezalako pertsonen ahotsoa emateko. Azken urteetan, telebistan analisi profesionalek edo sakonagoek izan dute lekua, eta uste dut gizartearen zati handi bat aspertzen hasia dela. Gu kalera jaisten gara, hizkuntza arruntagoa eta zuzenagoa erabiltzen dugu, eta horrek ez dio esandakoari baliorik kentzen; saioa jarraitzea errazten du. Hasieran, beldur apur bat ematen zidan 50 lagunek esango dutena ez kontrolatzeak, baina onerako harrituta nago: maila handiko eta askotariko jendea dugu, eta aberasgarria da hori. **Irratiko mikroak telebistako kamerekin aldatu zenituen. Zer kosta zitzaizun gehien?** Kostatu egin zitzaidan irratia uztea, nire esparrua da eta: unibertsitetearen nengoela hasi nintzen irradian, eta gero, hamasei urte eman ditut bertan, pasioa sentitzen dut. Baina telebistan oso gustura nago baita ere: ez nuen inoiz ere horrelakorik planteatu, baina asko ikasten nabil. Gainera, egungo telebista ez da garai batekoa; dinamikoa da, bizirik dago, eta horretan irratia antza du. **Irratia ez zenuen zure erabakiz utzi, EITBko enplegua erregulatzeko espedientearen ondorioz baizik. Nola bizi izan zenuen?** Ez ziren

errazak izan; norbait egiten dabilenarekin gustura dagoenean, gogorra da horrelako egoera bat igarotzea. Baina EITBn segitzen dut lanean, kazetari, eta nahiago dut aurrera begiratu.

**Zure ibilbidean landutako gaien artean, zeinek sorrarazi dizu zirrara handien?** Hemen bizi izan dugun egoeraren ondorioz gauza itzelak gertatu dira, baina esango nuke gehien markatu nautenak Martxoaren 11ko atentatuak izan zirela. Goiz hura amesgaizto bat iruditzen zitzaidan: lehenengo, istripua; gero, hildakoen jarioa... Sinestezina zirudien. Maila pertsonalean asko inpakatu ninduen, eta baita profesionalean ere. Gogoan dut nola kontatu zuen gertatzen ari zena orduan Madrilen gure berriemailea zen Ainara Torre, itzela iruditu zitzaidan.

**Nola egin aurre *fake news* edo albiste faltsuei?**

Oso zaila da, titularren kontsumitzaileak gara eta; ez dugu ezertan sakontzen, eta erraza da horrelakoak sinestaraztea. Daramagun bizitza estiloaren isla da hori. Nik asko erabiltzen dut Twitter, oso erabilgarria da kazetariontzat, baina titularraren atzean dagoena ere arakatu behar da. Kritikoagoak izan behar dugu, eta ezin dugu pentsatu irakurtzen dugun guztia horrela denik: lehenengo begiratuan irakurtzen dugunarekiko mesfidatiak izan behar dugu.

**Zein da gaurkotasunaz deskonektatzeko hutsik egiten ez dizun teknika?** Arazo bat daukat horrekin. Bizitza pertsonalak balio du horretarako, baina oso zaila egiten zait niri: lanean ez banago ere, ezin diot mugikorra begiratzeari utzi. Honetan gabiltzanok bizitza osorako engantxatuta gaudela uste dut.

**Zallan jaio zinen eta Gueñesen bizi zara. Zer ez luke galdu behar Enkarterrira doanak?** Ez luke ezertxo ere galdu behar; izan ere, pena den arren, oso ezezaguna den eskualdea da: oso ederra da, oso zabala, berde zoragarri batekin... Gueñesen bizi naizenez, esango dizut Arenatzarte parkera joan behar duzula, biriki bat da. Jende guztia gonbidatzen dut Enkarterrira; uste duguna baino askoz gertuago dago, gainera! ■■■





# Dantzaren doinuz

---

**ARGAZKIA:** IMANOL SORIANO

---

**TESTUA:** IKER ONATE

---

Neska-mutikoek euskal dantzez busti zituzten Aretxabaletako bazterrak. Zenbait herritako ordezkaritza, Dantzari

Egunaren xarmaz gozatu nahirik. Sarri kalea delako Euskal Herriko dantzarien agertoki. Aurrez aurreko harremana dago ikusleekin, agertokiaren altuerak ezar dezakeen distantziari kontra eginez. Eta ezin uka horrek ere baduela xarmarik. Hori horrela, aretxabaletarrek ez zuten hitzordua galdu gura izan. Tartean zen Beñat Arizabaleta abeslari ezaguna. Astean bertan *Bago!az* lehiaketatik kanpo geratu bazen ere, ez zuen herriko dantzarien ikuskizunaz gozatzeko aukera galdu gura izan. Eta hori aprobetxatu nahi izan zuten hainbat dantzarik. Izan ere, argazkia lekuko, domekan bat egin zuten kantuak eta dantzak, doinuak eta urratsak. ■■■







# Ohitura berriak kulturean

Kultur kontsumoaren eta ohituren gaineko datuak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak maiatzean, herritarren artean hainbat inkesta egin ondoren. Hori dela eta, hainbat kultur diziplinatako bailarako zenbait kulturagileekin izan da PUNTUA, datuez harago, euren pertzepzioa ere ezagutzeko.

Testua: **Josu Bilbao.**

Argazkiak: **Goiena.**

**E**usko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak kultur kontsumoaren gaineko soziometroa egin zuen urte hasieran, eta maiatz bukaeran aurkeztu zituen datuak Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriak. Inkestak otsailaren 26tik martxoaren 5era egin zituzten, etxex etxeko 1.973 elkarriketaren bitartez.


Inkesta horietan batutako emaitzen arabera, biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%57) uste du kultur politikek lehentasun handia izan beharko luketela Jaurlaritzaren politiken artean. Gainera, beste %35ek uste du lehentasun ertaina izan beharko luketela; %3k bakarrik uste dute lehentasun txikia izan beharko luketela. Inkestako datuek, gainera, erakutsi dute herritarren ia erdiek uste dutela baliabide publikoak "kultura irisgarriago egitera" bideratu beharko lirakekeela (%43). Arrazoi horren atzetik, "sortzaileei laguntzera bideratu" beharko lirakekeela %28k azaldu dute.

Horrez gain, gutxi gorabehera hamarretik zortziren iritziz, kulturean inbertitzeak "asko edo dezente hobetzen du elkarbizitza" (%84), bizi-kalitatea (%84) eta ekonomia (%81).

Aisialdiak herritarren bizitzetan duen garrantziaren inguruan ere galdetu du Eusko Jaurlaritzak, eta, 2008ko datuekin alderatuta, dezente behera egin du datuak. Izan ere, 2008ko inkesten arabera, %69k garrantzi handia zuela erantzun zuen, eta 2018an %59k.

Bestalde, kulturarekin lotzen den sentimenduaren gainean ere galdetu dute soziometroan, eta gehienek "ezagutzarekin eta gauza





KULTURARI LEHTASUNA  
EMATEAREKIN ADOSTASUNA

Handia %57

Ertaina %35

Ez daki/ Erantzun gabe %5

Txikia %3

berriak ikastearekin" aukeratu dute (%51), "ongi pasatzearekin" aukeraren gainetik (%36).

Kultur jardueraren gainean, praktika kulturalen bat egiten dutenak hamarretik bi dira, gutxi gorabehera. Gazteenen artean portzentajeak gora egiten du (%29).

### Babes handiagoa

Soziometroan erantzun duten %64ren ustez, erakunde publikoek kulturari gaur egun eskaintzen dioten baino babes handiagoa eman beharko lioketela azaldu dute –gaur egun baino gutxiago %9k bakarrik eta gaur egungo maila berean %21ek–. Bingen Zupiria sailburuak datu horiek azpimarratu nahi izan zituen, hain zuzen, aurkezpenean: "Herritar gehienek esaten digute erakundeok era argian babestu behar dugula kultura. Lehentasun handia duela, hain zuzen ere. Oso alderdi positiboa dela iruditzen zait. Haatik, inkesta horretatik ondoriozta daitekeenez, biztanleriaren gehiengoak uste du kultura irisgarriago egitera bideratu beharko liratekeela baliabideak, sortzaileen lana zuzen-zuzen laguntzera bideratzearen gainetik. Gure iritziz, alderdi horren inguruan nolabaiteko pedagogia egin beharko litzateke; izan ere, gure kultur sistema osasungarri eduki nahi badugu, aintzat hartu beharko dugu sortzaileen lanak kulturazaleen babesa izan beharko duela, eta lan hori ere ordaindu beharko dela. Hain zabaldua dagoen *doakotasunaren kulturari* aurre egin behar diogu kulturgintzaren arloan ere”.

# MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK

**S**ozio metroaren inkesten arabera, hamar biztanletik lauk museo eta erakusketetara joateko zaletasuna adierazi dute –%15ek handia eta %28k nahiko handia–. Azken urtean, berriz, biztanleen %44 joan dira arte-museoren batera, %16 zientzia-museoren batera eta %18 historia-museoren batera.

Adina kontuan izanik, 46-64 urte bitartekoak dira zaletasun handiena dutenak (%47) eta 18 eta 29 urte artekoak gutxien (%38). Gainera, emakumeak (%47) zaleagoak dira gizonak (%39) baino. Datu bitxia da baita ere euskara dakiten eta erabiltzen dutenak (%45) ez dakitenak (%33) baino zaleagoak direla.

Ikusitako arte erakusketetatik, %8 bakarrik ziren emakumezkoenak eta %31 gizonezkoenak; gainerakoek, %43k, erakusketa mistoak ikusi zituzten –gizonezkoenak eta emakumezkoenak– edo ez dute galdera erantzun nahi izan %19k.

Bestalde, museo edo erakusketaren batera joan direnen artean, hamarretik ia zazpik Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako museo batera joan dira (%68), gehienak Guggenheimera (%57) eta Bilboko Arte Ederren Museora (%36). Horien ondoren, San Telmo Museoa (%9) eta Eureka! Zientzia Museoa eta Gasteizko Artium (%3 bakoitza) datoz. Gutxien bisitatu direnen artean, Arabako Arte Ederren Museoa eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa daude.



## ZALETASUNA

Nahiko handia %28

Ertaina %23

Batere ez %18

Txikia %16

Handia %15

## "Proposamen berriek eskaintza hobetu dute"

JESUS MARI LAZKANO MARGOLARIA

### Bisitarien kopuruak gora egin duela nabaritzen duzu?

Bai, noski. Museoak eta hainbat erakusketa beteta ikusi ditugu sarritan. Museoek, gainera, beste itxura bat hartu dute, eta proposamen berriak ikusten dira. Bisita gidatuak gero eta gehiago egiten dira, arlo pedagogikoa ere lantzen da... Poliki, aldatzen joan dira, eta gaur egun askoz erakargarriagoak dira, nire ustez. Bestalde, erakusketen kalitatea apurka hobetzen doala uste dut. Arte proposamen berriekin asko hobetu da eskaintza, eta oso pozgarria da.

**Igoera nabarmena izan da bertako bisitariei dagokienez. Zer dela eta?**



Turistez gain, bertako herritarren gorakada garrantzitsua izan da. Museoetan senide, lagun edo ezagun bat topatzea normala da gaur egun. Bazirudien museoetara turistek soilik joan behar zutela, eta guk, zelanbait, bizkarra eman diegu. Orain, museoak gureak direla sentitzen dugula uste dut,

eta bertako artisten obrak erakusteak ere horretan nabarmen lagundu du. Gaur egun ez dago lehen egon zitekeen distantzia hori. Baina ondoan ditugu, eta gure museoak gure sentitzen ditugu.

**Emakumeen erakusketak ez dira hainbeste ikusten.**

**Badago lana egiteko, ezta?**

Datu horiek handitu egin behar ditugu. Egia da artearen munduan emakume asko daudela, eta Arte Ederren fakultateetan gehienak emakumeak dira. Hori erakusketetan islatu behar da eta presentzia handiagoa eta ikusgaitasun gehiago eman behar zaie. Ez dituzte gizonak bezalakoa aukerak izan. Hala ere, azken urteetan egoera aldatzen ari da. Oso artista potenteak ditugu, eta beharrezkoa da eurei lekua ematea.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

Ikus-entzunezkoak ere aztertu ditu soziometroak.

Zinemagintzari dagokionez, inkestatutakoen artean, hamarretik bederatzik asteen behin, gutxienez, ikusten dute pelikula edo telesailen bat, gehienek telebistan –%26k egunero, %44k asteen hainbatetan eta %18k asteen behin, gutxienez–. Pelikulak ikusteko zaletasuna oso hedatuta dago, eta hamarretik zortzik diote asko (%43) edo nahiko (%36) gustatzen zaiela. Gehienek, hamarretik zortzik, telebistan ikusten dituzte pelikulak eta telesailak, baina gazteen artean erdia dira telebistan ikusten dituztenak eta %34k zuzenean Interneten ikusten dituzte. Gazteak (18-29 urte) dira zaletasun handien dutenak, %86k zaletasun handia edo nahiko handia dute eta. Zaletasun gutxien 65 urtetik gorakoek dute (%65). Ia ez dago ezberdintasunik gizonen eta emakumeen zaletasun mailaren artean.

Bestalde, hamarretik sei azken urtean gutxienez behin joan dira zinema aretora pelikularen bat ikustera. Hala ere, zinemara joan direnen erdiak urtean hiru aldiz baino gutxiagotan joan dira. Horrez gain, galdetutakoen %19k ikusi dute azken 12 hilabeteetan zehar pelikularen bat euskaraz. Portzentaje hori %36koa da euskaraz dakitenen artean. Txanponaren beste aldean, galdetutakoen %73k ez dute azken urtean euskarazko pelikularik ikusi.



ZALETASUNA

**Handia** %43

**Nahiko handia** %36

**Ertaina** %10

**Txikia** %6

**Batere ez** %4

**Ez daki / Erantzun gabe** %1

## "Etxean gero eta gehiago kontsumitzen da"

**MIREIA GABILONDO** AKTOREA ETA ZUZENDARIA

### Gero eta jende gutxiago gerturatzen da zinemetara. Zer dela eta?

Betiko kontua dela dirudi. Ez dakit zehazki zergatik gertatzen den, egia esateko. Zinemara gero eta jende gutxiago hurbiltzen da. Ohiturak aldatzen doaz, eta etxean gero eta gehiago kontsumitzen dugu; bai filmak, bai telesailak. Garestia dela ere esaten da, eta merkeagoa den egun bat jartzen denean bete egiten dira aretoak. Edozelan ere, nik ez dakit diru kontua den edo ez. Egia da etxean ikusterik baldin baduzu, dirua edo nagikeria ere hor daudela, edota gure artean harremantzeko modua aldatzen doala. Izan ere,



lehen, lagunekin zinemara joateko gelditzen zen. Gaur egun, bakardade batetik, etxean kontsumitzen dira produktu hauek. Nik gonbita egingo nuke gogoratzeko oraindik taldean egiten diren gauzak zergatik egiten diren konturatzeko. Esate baterako, pelikula bat gero

lagunekin komentatzen dugulako edo beste hainbat kontu. Gauzek duten esanahia, emozioa eta zentzua gogoraraztea oso garrantzitsua dela uste dut.

### Euskarazko ikus-entzunezkoek toki txikia dute oraindik. Gogorra da, zuendako, datuak ikustea?

Azkenean, non gelditzen gara gu edo zertarako egiten dugu egiten duguna, ezta? Nik, gaztetatik, mundu honetara iritsi nintzenetik, beti kontuan izan dudanez, ohituta nago honetara. Zinemara edo antzokietara jende gutxi hurbiltzen bada, berdin dio. Jende hori hurbildu da, eta horientzako ari zara lanean. Gero, gauzak zabaltzen baldin badoaz, zerbait egiten ari garela sentitzen dut. Niri, garrantzitsua iruditzen zait eta gozatu egiten dut; beraz, nik hor jarraituko dut.



# ARTE ESZENIKOAK

**S**oziometroaren inkesten arabera, hamar biztanletik lauk adierazi dute arte eszenikoak –antzerkia eta dantza– oso edo nahiko gogoko dituztela (ia %40). Adinari dagokionez, zenbat eta helduagoak izan, orduan eta zaleago dira. Datu horrek, hala ere, gazteen interesik eza ere erakusten du; izan ere, gazteen artean, zaletasunak dezente egiten du behera. 65 urte baino gorakoen erdia oso edo nahiko zalea den bitartean, 18-29 urte bitartekoetan kopurua %32ra jaisten da. Zaletasuna kontuan hartuta, emakumeak (%48) zaletasun handiagoa dute gizonezkoekin (%32) alderatuta.

Datu zehatzei erreparatuz gero, azken 12 hilabeteetan, %26 joan dira antzerkira, %20 bat-hiru aldiz eta gainerako % 6a, maizago. Hala ere, hamarretik zazpi ez dira behin ere joan antzerkira azken urtean (%72). Lirika eta dantza ikuskizunetara, bestalde, gutxienez behin, galdetutakoen %13 joan dira azken urtean. Datua nahiko eskasa da; izan ere, eskaintza egon arren, hamarretik bederatzi ez dira joan lirika eta dantza ikuskizun batera.

Euskaraz dakiten inkestatutakoak gehiago joan dira azken urtean antzerkira –gutxienez behin %32– ez dakitenak baino (%18). Eta euskal hitzunez ikusitako antzerkietatik baten bat euskaraz ikusi zuten %44k –%11k ikusitako emanaldi guztiak, %6k erdia baino gehiago, %15ek erdia eta %12k erdia baino gutxiago–.



## ZALETASUNA

Batere ez %25

Nahiko handia %23

Ertaina %21

Handia %17

Txikia %13

Ez daki / Erantzun gabe %1

## "Publikoa sortzeko lan handia dago egiteko"

KEPA ERRASTI AKTOREA

### Nola ikusten duzu euskal antzerkiaren egoera?

Ez da erraza. Euskal Herrian antzerki konpainia, talde, kolektibo asko gaude, eta, kontuan hartuta hemen arte eszenikoen programazioa ez dela bereziki zabala, bidea zaila da. Horri gehitzen badiozu herri askotan euskaraz gutxiago programatzen dela, euskarazko lanen errealtatea are zailagoa da. Herri askotan, gainera, ez dago aurrekontu nahikorik eta pentsaezina da zenbait lan programatzea. Oso mugatuta daude. Hala ere, kasuan kasuko programatzaile batzuek egiten duten ahalegina azpimarratzekoa da.



### Gazteak zergatik ez dira antzerkira hurbiltzen?

Nik uste dut heziketa kontua dela. Zoritzarrez, arteak, dantzak, ez dauka leku handirik eskola eta ikastoletan eta horrek eragin zuzena dauka, gero, jendearen ohituretan. Garbi dago publikoa sortzeko lan handia dagoela

egiteko, eta hori denon erantzukizuna da, baina, *akademikoki* diziiplina artistikoez pisu handiagoa balute, seguru egoera erabat ezberdina izango zatekeela. Baita helduagoen kontsumo ohituretan ere.

### Euskal hiztunak gehiago hurbiltzen dira antzerkira. Badago, beraz, publikoa?

Aurreneko lana, *Mami Lebrun*, euskara hutsean egitea erabaki genuen. Emanaldi dezente egin ditugu eta publiko aldetik ere denetik izan dugu. Nik esango nuke badagoela publiko bat antzerkia euskaraz kontsumitzeko ohitura duena; hizkuntza beraren ondorioz gertuago sentitzen dutelako, talde eta sortzaile asko erreferente bilakatu direlako euskarazko antzerkian, eta, kasu batzuetan, militantziagatik ere bai. Hala ere, datuak kezkarriak dira.

# IRAKURKETA

**I**nkesten arabera, biztanleen erdiek baino gehiagok irakurtzeko zaletasun handia edo nahiko handia dute (%57) eta %86k denbora librearen zati bat irakurtzen ematen dute (prentsa, liburuak edo bestelako irakurgaiak). 2004an egindako galdeketa, %52k zuten zaletasun handia edo nahiko handia; beraz, datuek gora egin dute.

Maiztasunari dagokionez, ia erdiek (%47) egunero edo ia egunero irakurtzen dute, %19k astean bitan edo hirutan, %15ek noizean behin eta %5ek gutxitan. Aldiz, ia inoiz ez edo inoiz irakurtzen ez dutenak %13 dira. Irakurtzen ez dutenen artean, arrazoi nagusiak ohiturarik ez izatea (%46) eta irakurtzea gustuko ez izatea (%44) dira, eta baita denbora falta ere (%39). Irakurtzen dutenen artean, berriz, arrazoi nagusiak dira informatuta egotea (%67), denbora-pasa eta ondo pasatzea (%56) eta gauza berriak ikastea (%25).

Dezente gehiago dira liburuak irakurtzen dituzten emakumezkoak gizonezkoak baino. Hala ere, irakurritako azken liburuari dagokionez, %54k gizonezko batek idatzitako liburua irakurri dute. Portzentaje hori %66ra igotzen da gizonezkoen kasuan. %5ek azken liburua euskaraz irakurri dute, eta euskaraz dakitenen artean %10ek; %16k formatu digitalean irakurri dute. Izan ere, irakurleen erdiek (%50) formatu digitalean irakurtzen dute. 2004an %18 ziren testuak digitalean (ordenagailuan) irakurtzen zituztenak.



ZALETASUNA

**Handia** %29

**Nahiko handia** %28

**Ertaina** %20

**Txikia** %13

**Batere ez** %9

**Ez daki / Erantzun gabe** %1

## "Liburugintzaren presentzia da gakoa"

**TERE IRASTORTZA** BERGARAKO UNED-EKO IDAZLE ESKOLAKO ZUZENDARIA

### **Badirudi euskaraz idatzitakoak oraindik ez duela horrenbesteko presentziarik...**

Euskal liburugintzaren presentziarekin oso lotuta ikusten dut datua. Presentziaz ari naizenean, hedabideetako presentziaz ari naiz, hasteko, baina baita liburu dendetan edota merkataritza-guneetan euskarazko liburugintzak duen presentziaz ere. Gaia lotuta ikusten dut irakurtzeko arrazoiaren artean ematen diren datuekin. Komunikabideetan euskaraz dauden liburuaren artean, literaturazkoei erreparatzen zaie, bereziki: narrazioa, batez ere, eta gero, haur eta gazte literatura, poesia eta saiakera. Baina informatuta egoteko edo gehiago



jakiteko arrazoiei erantzuteko, euskal liburugintzak eta euskal prentsak ez du itzalik hedabideetan. Kontuan hartu behar da, oraindik ere, *euskal gaia* tratatzen duten liburu gehiago daudela erdaraz euskaraz baino. Gainera, uste dut Euskal Herriko jende askorentzat zaila dela

ulertzea euskarazko liburua originaltasunaz. Sarri, ematen du bigarren eskuko esperientzia bat eskaintzen dugula. Euskaraz idazten dena lehendik beste batek idatziko zuela erdaraz.

### **Irakurtzen dutenak dezente gehiago dira emakumeak. Hala ere, gizonek idatzitakoak gehiago irakurtzen dira...**

Esango nuke emakume idazleak normala zirudien hazkundera bizi badu ere, aurreiritzi handia dagoela emakumeek emakumeentzat idazten ote dugun. Hori dela eta, gizonezkoen eredua unibertsalagotzat jo eta badirudi denek irakurri beharrekoa dela, eta, batez beste, horrek adierazten du ziurren gizonezko askorentzat *a priori* ez dela ohiko irakurketa-eredua emakumeek idatzi dutena irakurtzea.

# BERTSOZALETASUNA

**B**ertsolaritzaren gaineko zaletasun mailaz ere galdetu du soziometroan Eusko Jaurlaritzak, eta, horren arabera, %21 dira oso edo nahiko bertsozaleak, euskal hiztunen artean herena (%33). Horrez gain, euskal hiztunen %25 joan dira azken hamabi hilabeteetan bertsolariak ikustera edo entzutera. Datuek gora egin dute azken hamarkadan. 2006an ere bildu zituen soziometroak bertsolaritzaren gaineko datuak, eta bertan, %17 bakarrik ziren oso edo nahiko bertsozaleak.

Adina kontuan izanik, nagusiak -65 urtetik gorakoak- zaleagoak dira (%29) gazteak baino (%15). Datu aipagarria da herri txikietan bizi direnak zaleagoak direla (%30) hirietan bizi direnak baino (%16). Orokorrean, gizonak (%22) emakumeak (%19) baino zaleagoak dira, soziometroaren arabera.

Bertsolari Txapelketa Nagusia izan den urtean egin da galdeketa. Horrek gorakadan "garrantzia" izan zezakeela aipatzen du soziometroak. Horren harira, azkeneko bertsolari txapelketaren berri biztanleen erdiek izan dute (%47), eta euskal hiztunen %67k. Baina Bertsolari Txapelketa Nagusiaren berri izan dutenen erdiek baino ez zekiten Maialen Lujanbiok irabazi zuela txapelketa (%51), euskal hiztunen % 70ek. 2006ko datuekin alderatuta, orduan, galdetutakoek %58k zuten Txapelketa Nagusiaren berri, baina garailea nor izan zen -Andoni Egaña irabazi zuen 2005eko txapelketa- %27k soilik zekiten.



ZALETASUNA

Batere ez %51

Txikia %24

Nahiko handia %14

Handia %7

Ez daki / Erantzun gabe %4

## "Zaletasun gorakada plazetan igartzen da"

MIREN AMURIZA BERTSOLARIA

**Bertso zaletasunak gora egin du, datuen arabera.**

**Pertzepzio hori duzu?**

Bai, hori plazetan igartzen dugu astebururo. Entzule kopurua mantendu egiten delako eta plazak ere dibertsifikatu egin direlako. Horrek entzule mota dibertsifikatzea ekarri du. Duela urte batzuk iristen ez ginen publiko batengana heltzen gara orain. Bertso eskolen inguruko mugimendua ere goranzkoa da. Gauza asko daude hobetzeko, baina zaletasunak gora egin du.

**Zer dela eta gorakada hori?**

Bi arrazoi ikusten ditut: alde batetik, hezkuntza programa barnean Bertsozale Elkartek badu programa bat, eta, agian,



etxeakoak edo ingurua bertsozale ez dituen umeak bertsolaritzarekin lehen kontaktua egiteko aukera ahalbideratzen du. Gehienak hortik pasatzen dira bertso eskoletara. Gainera, Txapelketa Nagusiaren urtean beti izaten da gorakada.. Txapelketa Nagusiak urte osorako hauspoa ematen

digula egia da. Hala ere, BECera joaten den bertsozalearen profila ez da plazara joaten denaren berdina. Hor autokritika ere egin behar dugu, askotan, txapelketan bertsoagatik baino gehiago momentuagatik dagoen bertsozalea ere badago eta.

**Emakumeak protagonista zarete, gainera...**


Duda barik, aldaketa izan da. Maialenen txapela da sinbolikoki pisu handiena duen elementua, baina gero, astebururo plazetan dagoen errealitateak ere hori erakusten du. Gero eta emakume gehiago gara, eta gure artean ere gero eta ezberdinagoak. Denoi gertatu zaigu noizbait saioko emakumea izatearen etiketa, batek denak ordezkatzuko balitu bezala. Oraindik bide luzea geratzen zaigu egiteko, baina bagoaz lekua hartzen.

# MUSIKA

**M**usikarekiko zaletasuna ere aztertu du Eusko Jaurlaritzak. Horren arabera, galdetutakoen %81ek zaletasun handia edo nahiko handia dutela adierazi dute. Hamarretik zazpi musika egunero edo ia egunero entzuten dute (%67) eta hamarretik bik astean hainbatetan (%18). Bestalde, musika inoiz edo ia inoiz entzuten ez dutenak %2 baino ez dira. Irratia eta telebista dira musika entzuteko gehien erabiltzen diren gailuak (%45) eta bigarren erabiliena Interneten zuzenean entzundako musika da (%24). Gainera, %12k Internetetik doan jaitzitako musika entzuten dute. Gazteenen artean, joerak bestelakoak dira (18-29 urte bitartean); horiek, batez ere, zuzenean Internet bidez entzuten dute musika (%54k).

Pop musika (%38) eta rocka (%36) dira oraindik ere musika estilo gustukoena. Maila apalagoan entzuten dira musika klasikoa (%18), abesti herrikoiak (%15), salsa eta merengea (%12), eta rapa edota hip hopa (%10 bi kasuetan). Azken estilo honek gorakada handia izan du azken urteetan (2006ko inkestetan %4k soilik aipatu zuten gustukoenen artean).

Biztanleen %45ek aipatu dute azken 12 hilabeteetan kontzerturen batera joan direla eta %23k musika disko, CD edo DVDren bat erosi dutela. Galdetutakoen %29k sarritan entzuten dute musika euskaraz eta %27k noizbehinka.



ZALETASUNA

**Handia** %52**Nahiko handia** %29**Ertaina** %9**Txikia** %6**Ez daki / Erantzun gabe** %3**Batere ez** %1

## "Egoera berrietara moldatu behar dugu"

IÑIGO ZUBIZARRETA MUSIKARIA

### Diskoek salmentak behera egin du nabarmen. Bide berriak bilatzen ari zarete musikariak?

Aspaldi konturatu ginen, bai. Lehen, disko dezente saltzen bazenituen, hortik etekina atera zenezakeen. Aspaldi aldatu zen hori Interneten etorrerarekin. Orain, doan entzun daitezke diskoak Interneten. Horregatik ez dira hainbeste erosten. Internetek, hala ere, alde ona ere badu, jende gehiagorengana hel zaitezke eta. Musika asko dago, eta aukera ugari daude, baina taldeek egoera berrietara moldatu behar dute. Gu disko onak ateratzen saiatzen gara, eta gura duenak erosi egiten ditu, oraindik formatu fisikoa



gustuko dutenak daude eta. Horrekin lotuta, biniloak jarri dira modan berriro, nahiz eta oraindik gutxi batzuek bakarrik erosten dituzten. Hala ere, Interneten, Spotifyn eta Youtuben ere jartzen ditugu gure abestiak. Baina, gaur egun, taldeek kontzertuetatik ateratzen dute dirua. Jaialdiak

moda-modan daude orain eta horrek aretoetako kontzertuak apur bat galtzea ere ekarri du, nire ustez. Baina egia da orain zuzenekoek ematen dietela hauspoa musika taldeei.

### Pop eta rock estiloak dira oraindik gustukoena, baina hip hop estiloa ere gorantz doa...

Joerak dira. Lehen, reggaetona ez zen entzuten, eta orain, asko entzuten da. Pop eta rock doinuak beti entzun izan dira hemen, baina rapa eta hip hopa gehiago entzuten hasi da, bai. Nik ere, pertsonalki, lehen ez nuen hip hop estiloa entzuten eta orain, bai. Egia da orain goranzko joeran dagoela. Gauden garaietan egonda, eta hip hopa beti aldarrikatzailea eta *underground*-a izan dela kontuan izanda, normala iruditzen zait. ■■■





NAROA ELORTZA GORROTXATEGI

# Goitik behera ala behetik gora?

**V**irginie Despentes-en *King Kong Teoria* liburua hasi berri dut. Lehen kapitulutik gogor hasten da: baieztatzen du estatuak, bere komunikazio eta aisiaren industriarekin, amatasuna gainbalioesteko mezuak zabaltzen dituela, baina ez emakumeekiko eskuzabaltasunez, baizik eta norbanakoak anulatu, menpeko bihurtu eta estatu totalitariorako bidea leuntzeko baizik.

Kapitulua bukatu eta hara! EAJk berriz ere PPren aurrekontuak onartu ditu, Ibex-35eko Ciudadanos-ekin batera. Estatutua eta konpetentziak kendu nahi dituzten horiekin. Presoak urrun mantendu eta bakea oztopatzea helburu dutenekin. Hori bai, guztia Euzkadiren hobe beharrez omen.

Despentesen hitzak gogorarazi dizkit EAJren justifikazioak. "Guk dakigu zer den zuentzako ona, utziguzue zuen partez erabakitzen". Hori da beren gizarte eredua: botere ekonomiko eta politikoa baldintzatuko ez duen herria, anulatua eta boterearekiko autonomiarik ez duten erakundez osatua. Horretarako, erosoak ez direnak isilarazten dituzte, sare sozialetako kontuak fiskaltzan salatuz (horra hor Gipuzkoako Foru Aldundi ekintzailea), turismoaren

**EROSOAK EZ DIRENAK ISILARAZTEN DITUZTE, SARE SOZIALETAKO KONTUAK FISKALTZAN SARTUZ**

hiriburuaren aurkako protesta baketsua egurtuz edota sindikatuak ilegalizatzen saiatuz.

EAJren zuzendaritzak ez du ez independentziarik, ezta erabakitze eskubiderik nahi –ez bada kontu sinbolikoetarako–. Ezin diogu etengabe itxaron, eskua noiz emango digun. Burujabe izan nahi badugu, subjektu politikoa indartzea izan behar dugu ipar. Burujabetza integralki ulertuta: pobrezia energetikoa amaituko duen energia burujabetza, finantza eredu kooperatiboak, eraldaketarako tresnak, ekintzailetasun soziala (ez-neoliberalala)... Ekainaren 2an beste aukera bat dugu herria burujabetzara bidean saretzeko: zatoz Iruñera, Alternatiben Herrira, gaurko Margaret Thatcher-i alternatibak baditugula erakustera! ■

## EZTABAIDA

### Homeopatia farmazietan

Osasun Ministerioak bultzatzen duen arautzeak legeztatuko du gutxieneko baldintzak betetzen dituzten produktu homeopatikoko guztiak farmazietan saldu ahal izatea medikamendu moduan.



AMAIA IGARTUA  
FARMAZIALARIA

"Frantzian, adibidez, medikamentu homeopatikoko bertako segurantzaren sistemaren barruan daude. Medikamentuak direnez, baldintzak eta probak pasa behar dituzte. Eta haien salmenta farmazia bidez egiteak horien kalitate eta erabilera ona bermatzen duela esango nuke".



AMAIA IRIARTE  
HOMEOPATA

"Medikuak aurrean duen pertsonarentzat laguntza egokiena topatu behar du; homeopatia eskura dugu beste terapia bat da, baditu bere oinarri zientifikoak. Dioten moduan, produktu homeopatikoko medikamentuak dira".

## XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



## ERREMATEA



XABIER MUGARTZA

## Askatasun inposatua

**G**aur egun, askatasuna norbanako bakoitzak gura dauena egittia bezela saltzen doskue. Nere ustez, hortik nahiko urrin dau askatasuna.

Askatasuna, 1:  
Askatasuna ardurarekin lotuta dau, pertsonaren dignitatia ez zapalketiakin lotuta dau, komunitate zentzuarekin lotuta dau. Inork ez dako eskubiderik beste inoren dignitatia zapalketako, ezta norberak bere buruarena be.

Askatasuna, 2: Norberaren ideia propioak sortu, garatu eta defendatzia benetako askatasunaren funtsezko elementutzat jotzen dot, honek edo harek esandakuari erreparatu barik, honek edo harek esan izandakuaaren arabera alde edo kontra ipini barik.

Norberaren ideia propioak sortu, garatu eta defendatzia horren zaila dan errealitatan, aberastasun itzel hori bihar bezela trebaketan ez dan garai honetan, benetako askatasunaren funtsezko elementu honi garrantzixa kentzen dotzagun honetan, gura doguna egittiakin aske gariela pentsaitten du; irakurketa hori egindda, gizarte dominatu eta lokartu bat eratzen dogula konturatu barik. ■■■



**JOSE RAMON FERNANDEZ**  
PEDIATRA

"Geroz eta gehiago gara farmako homeopaticoak aholkatzen ditugun medikuak eta pediattrak. Meningitis baten aurrean, argi eta garbi antibiotikoak erabiliko ditugu, baina katarro batean, adibidez, egiaztatuta dago homeopatiak prozesua laburtzen duela".



**JOSU OLAIZOLA**  
HERRITARRA

"Seme-alabak jaio zirenetik etxean guztiok hartu izan ditugu produktu homeopaticoak eta oso emaitza onak eman izan dizkigute. Gainera, albo-ondorio gutxiago izaten dituzte. Dena dela, garrantzitsua da beti mediku baten jarraipena izatea".

# Hitzartu: hitz eginez, adostasunera



**JOXEMARI IZETA** GURASOS TALDEKO KIDEA

**2**016ko udaberri hasierak mugitu zituen berriro Donostia eta bere inguruko herriak erraustegiaren aferan. Isilik eta geldirik zegoena, zeukaten. Herritar asko etsita eta aspertuta, egunerokotasunean murgilduta, politikarien arteko lehiarekin nazkatuta, elkarri zaborra botatzeak irudikatzen zuelako ongien ordura arteko egoera. Baina naturak udaberriarekin duen loturagatik edo, berriz esnatzen ari zen kezka hondakinen kudeaketaren harira. Lozorroan egondako erraustegiaren kontuak, zurrumurruak, aireratzen hasiak ziren.

Foru Aldundiak eraikin erraldoi honen obrak martxan berriro jartze aldera tramitazioak aurrera zihoazela jakin orduko, berriro agertu ziren inguruko hiritar eta herritarren beldurak, kezkak eta gainontzekoak. Maiatzaren hasierak ernatu zuen GuraSOS; haurren osasunagatik eta etorkizunagatik oso kezkatuak gauden herritar-guraso taldea. Ez genuen utzi nahi zuzenean eragingo digun gaia une horretan gobernantza lanetan zeuden politikarien esku. Guraso, herritar eta langile bezala, gure lekua nahi genuen erabakitze-guneetan. Ez legeak eskatzen duelako bakarrik, bete-betea eragiten

diguten gaietan guk ere parte hartu nahi dugulako baizik.

**2016ko ekainaren** 6an, prentsurreko bat tarteko, Jose Ignacio Asensiok iragarri zuen "inoiz ez bezala" egingo zen "prozesu parte-hartzaile bat". 2002-2016 plana bukatzeaz zela eta lehenbailehen egin behar zen PIRUG berriari begira (Gipuzkoako herrietako hondakinen kudeaketa integrala). Horren berri jakin bezain laster, prozesu parte-hartzailean egon ahal izateko, talde bezala inskribatu ginen zegokion erregistroan. Hor adierazi ziguten argi eta garbi hurrengo hamalau urteetako hondakinen kudeaketari buruzko parte-hartze prozesuan erraustegiaren gaia kanpo gelditzen zela. Oraindik obrak esleitzeko zeudenean, gatazka gainditzeko baldintzak aurrean genituenean, herritarren nahiz politikarien artean adostasunak bilatuz, jaso genuen ulertzen eta onartzen nekeza den erantzuna. Aurreko eta hurrengo ez dakit zenbat urteetako gatazka eta tentsioak bertan behera uzteko aukera lurpean sartu zuten Foru Aldundiko gobernantza lanetan zihardutenek. Are gehiago: 2016-2030eko PIRUGek exijitzen zuen prozesu parte-hartzaile ez zen egin eta plan integratzaile berria egitea

"garai hobeena zain" utzi zuten. Alegia, erraustegiko eraikina bukatu arte.

Helegitea jartzeak ere ez zuen konpondu gaia. Agintarien gurpila ez zen gelditu. Erabakita zegoen; gai honetan ez zegoen erdibiderik, irabazleak eta galtzaileak egon behar zuten eta denen aurrean jarriko zuten trofeoa: errauskailua. Baina gu guraso bezala ari gara eta hor ez dago etsipenarentzat lekurik.

## GuraSOS taldearen

proposamena da Hitzartu. Hiritar eta herritar bezala hitza, lekua, gatazka gainditzeko aukera eta parte hartzeko eskubidea eta nahia baztertu zaigun honetan, gure erantzuna hau da: ez goaz etxera eta ez goaz gure haurrei agindu genien "ez dizegu huts egingo" agindua zakarrontzira botatzera. Geuk hartuko dugu dagokiguna eta ukatua izan zaiguna. Hiritarrok-herritarrok egingo dugu agintariekin egin gabe utzi duen PIRUG berria eta dagokion parte-hartze prozesua ere.

Hitzartu: hitza hartu eta hitzarmenetara iristeko bideak urratu. Eskubide bat baino gehiago da. Gai ezberdinen aurrean, pentsiodunek, emakumeek, guraso nahiz herritarrek dugun beharra da, demokrazia bere heldutasunera eramango duen bideak ez du

atzera bueltarik. Hitzartu ez da ari soilik hondakinen kudeaketaren inguruan, askozaz harago doa. Herritarrek gai ezberdinen aurrean hartu behar dugun lekuaz ari da eta, aldi berean, agintariak bere tokian jarri nahi dituena; alegia, gizartearen eta gizarte honetako pertsonen zerbitzura.

#### **Parte-hartze formal**

prestatzen gabilta, *hiritar epaiak* izenarekin ezagutzen den teknika bitarteko. Hitzarturen aurkezpenean azaldu genuen lanketa osoaren jarraipena egingo duen Berme Batzordea. Aldi berean, martxan dira *open space* izenez ezagutzen diren eta espazio irekietan egingo ditugun dinamika parte-hartzaileak. Uda partean, berriz, Hitzartu Kulturalak. Beraz, herriak gai baten inguruan zer esan eta zer egin inportantea baduela aldarrikatzen du proposamen honek. Hemendik aurrera ezingo gaituzte jokoz kanpo utzi.

Erraustegia martxan denean, hau guztiau zertarako? Badu bere baitan helburu izaera; herritarrok bete-betean eragingo diguten gaien aurrean informazioa jaso eta eztabaidatzeko eskubideaz ari gara. Bere horretan helburu dena, ordea, aldi berean, bitarteko bilakatu dugu. Egiteke dago oraindik 2016-2030

PIRUG berria. Honetan ere ez gara egongo agintariei ondo noiz datorkien zain. Geuk, herritarrok, egingo dugu. Ez da harrokeria, herritarren eskubideak eta ahalmenak martxan jarri eta gauzatzea baino. Parte-hartzeak bilduko dituen informazio ezberdinek izango dute noranzkoa. Proposamenak udazkenean mahai teknikoek eta mahai sozialek landuko dituzte eta plan berriaren erredakzio taldeak urte bukaerarako izango du prest txostena. Herritarrek herritarrentzat egindako lana izango da, herritarrek zuzenean ipinitako diruarekin. Idatzi hau Foru Aldundian aurkeztuko da indar politiko guztien aurrean. Beraiek erabakiko dute zer egin behetik gora egindako herritarren eta profesionalen lanarekin: zaborretara bota edo erabilera ona eman.

**Beraz, adi** egon *Hitzartu* entzutean! Gaur ez bada, bihar izango duzu gure proposamenen berri, gure gonbitaren bat edo gure diru premien berri. Egin pauso bat aurrera, hurbildu. Zure esku-hartze txikiena beharrezkoa da eta Foru Aldundiaren bidean jarriko dugu. Hitza hartu eta hitzartu egin nahi dugu eta egingo dugu.

Informazio gehiagorako:  
[www.hitzartu.eus](http://www.hitzartu.eus). ■■■

## **HERRIAK GAI BATEN INGURUAN ZER ESAN ETA ZER EGIN INPORTANTEA DUELA ALDARRIKATZEN DUGU**



# "Liburu berriena saltzen dudan aldiko ez dut euroa lortzen"

ARANTXA URRETABIZKAIA IDAZLEA

Euskal idazle eta kazetaria da Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947). Eleberrigintza, olerkigintza eta gidoigintza landu ditu, besteak beste, eta beti egon da kultura giroetara oso lotuta. Feminista da, eta Hondarribiko alarde parekidearen aldeko borrokan ere nabarmendu da.

Testua: **Miren Arregi**. Argazkiak: **Xabi Urzelai**.

**U**rte asko egin ditu Arantxa Urretabizkaia euskal literaturgintzaren gorenean. 1970eko hamarkadan Lur editorialaren bueltan nabarmentzen hasi zenean, euskal kulturgintzako emakume bakarrenetakoa zen. Itzulpengintzarekin hasi zen, olerkigintzarekin eta eleberrigintzarekin jarraitu... Eta hori guztia uztartu du bere kazetari jardunarekin. Euskaltzain urgazle da 1983a ezkerro eta berriki izendatu dute ohorezko euskaltzain beste hamahiru lagunekin batera. Debagoienean izan berri da, genero identitateen gainean Mondragon Unibertsitateak antolatuta egin den literatur topaketan.

**60ko hamarkadara egingo dugu. Nola hasi zinen euskal kulturarekin konprometitzen? Zein zen orduko giroa?**

Ezin da gaurkoarekin konparatu. Garai hartan ez ginen hainbeste gazteak eta eskolatuak Donostian, nahiz eta ni oraindik euskaraz alfabetatu gabe nengoen. Alfabetatze inguruan ezagutu nituen antzerkia egin gura zuten gazte batzuk. Nirekin harremanetan jarri ziren, baina nik ez nuen antzerkia egin nahi. Gero, argialetxe bat sortu zen,

Lur editoriala. Ramon Saizarbitoria deitu zidan eta orduan hasi nintzen mundu honetan. 1968-1969 urte haietan.

**Lur editorialaren eta haren kideen lanak –Saizarbitoria, Sarasola, Rikardo Arregi, zu zeu...– aurreko belaunaldikoekiko zelanbaiteko haustura ekarri zuen. Ez zen erraza izango garai haietan euskara hutsean argitaratzen zuen editorial bati eustea.**

Gu hasi ginenean ez genuen ezer, ez genuen argialetxerik, ez genuen irakurlerik, ez genuen unibertsitateko sistemarik, hizkuntza estandarizaturik... Hutsetik hasi ginen. Gu harro geunden garai hartan eta esaten genuen gu ginela lehenengo argialetxe laikoa. Gainerakoak Elizara lotuta egoten ziren. Edo kaputxinoak, edo frantziskotarrak... Eta gu laikoak ginen, hori zen lehenengo puntu garrantzitsua. Bigarren puntua euskara batuarena zen eta ez zen batere erraza izan, tartean sartu baitzen euskara batuaren erronka. Ni haiekin elkartu nintzenean, abiatua zegoen 1968ko Arantzazuko lehen biltzar hura. Berehala ulertu nuen zein arrazoi zeuden horren atzetik eta bat egin nuen Arestirekin eta Ibon Sarasolarekin. Azken finean, haiek ziren hizkuntzalariak. Gainerakoak, Ramon eta biok,



beste zerbait ginen. Nik ulertu nuen beraiek arrazoi zutela, eta batu egin nintzen.

**Gaur egun ere, 50 urtera, badago eztabaida, euskara batuaren eta tokikoaren artean.**

Suposatzen da gurako bakoitzak, euskaldun bakoitzak, hizkuntzalari bat daramala sabelean. Nik ez daramat. Nik hasieratik esan nuen: “Zuek agindu eta nik beteko dut zuek esandakoa ahal bezain ondo”. Eztabaida hori badago oraindik ere, egia da, eta 50 urte pasatu dira, baina ehunka urte pasatu dira gaztelera batu zenetik edo frantsesa batu zenetik, eta gu azkenak gara alde horretatik. Iruditzen zait, hala ere, batasunaren momentuan, 1968an, oraindik Francori urte asko gelditzen zitzaizkiolarik, eskuinari zegokiola jarrera kultista bat eta ezkerriari zegokiola jarrera populista bat, baina hor alderantziz gertatu zela. Batuaren kontrakoek zuten jarrera populista bat eta aldekoek jarrera kultista bat. Orain ari da kontua bere normaltasunera itzultzen. Orain, askotan, ezkerretik dator batuarekiko kritika, ezkerretik dator, sarritan, txokokeriak lehen planora ekartzea. “Hitz hau baserri hartan esaten da”. Zenbat eta txikiago, orduan eta jatorrago. Hori momentu honetan, askotan, ezkerretik dator.

Horregatik diot hizkuntzari buruzko jarrera politikoa normaltasunera etorri dela.

**Zer ekarri zuen, inguruan, euskararen alde aritzeak garai hartan?**

Dakidana da sasoi hartan euskararen inguruan jarduteak ez zizula ematen inongo osperik, inongo abantailarik, ezta abertzaleen artean ere. Ni familia abertzale baten sortua naiz, aita zortzi urtez egon zen heriotza-zigorra jasota kartzelan. Gure aita hil zenean hasi nintzen ni kontu hauetan. Amari, abertzalea izanik ere, iruditzen zitzaion debalde sartzen ari nintzela arazoak besterik ekarriko ez zidan esparru batean. “Zertarako sartzen zera saltsa horretan!”, esaten zidan.

**Itzulpenekin hasi zinen eta 1972an argitaratu zenuen zure lehenengo sorkuntza lana: *San Pedro bezperaren ondokoak*. Itzulpengintza trebakuntza moduko bat izan da zuretzat?**

Txikitatik gura izan dut idazle izan. Txiki-txikitatik sartu zitzaidan hori buruan. Askok irakurtzen nuen, amaren ustez gehiegi, eta iruditzen zitzaidan idazle izatea grazia bat zela, zerutik edo ez dakit nondik zetorrena. Lehenengo idazleak ezagutu nituenean, batik bat, Ibon Sarasola, Gabriel Aresti

eta Ramon Saizarbitoria, ikusi nuen ni bezalakoak zirela. Aresti zahartxoagoa, baina besteak ni bezalakoak, eta itzulpengintza izan zen hizkuntzan trebatzeko tresna bat. Gogoratzen dut Frantz Fanon nola itzuli genuen Ibonek eta biok. Nik frantsesetik itzultzen nuen eta berak gazteleratik. Esaldi bakoitza begiratzeko genuen. Arestik kontatzen du berak euskara ikasi zuela Axular kopiatzen, eskuz. Bakoitzak bere sistema izan zuen. Niretzat, hori izan zen. Halako batean, pentsatu nuen: badut tresna nire gauzak kontatzeko. Niretzat, itzulpengintza izan zen eskola hori.

#### **Zer izan da, zuretzat, Ibon Sarasola bide honetan?**

Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoria izan dira nire bizitza eraldatu duten bi pertsona. Gurasoek markatutako bidetik aldentzeko indarra eman zidatenak. Esparru pertsonalean, Ibonek garrantzi handiagoa du, beste harreman bat izan nuelako berarekin. Baina bi horiek izan ziren beste bide bat posible zela erakutsi zidatenak. Gu hiru anai-arreba gara eta beste biek jarraitu dute etxean markatutako bidea –eta zoriontsu dira–, baina niri ez zitzaidan bide hori gustatzen eta Iboni eta Ramoni esker ikusi nuen beste bide bat posible zela.

**70eko euskararen loraldiaren protagonisten artean emakume bakarra edo bakarretakoa zinen. Ezingo ditugu ahaztu Amaia Lasa edo Lurdes Iriondo. Nola bizi zenuen egoera hura?**

Momentu batean, baina ni horretaz ez nintzen jabetu, euskaraz argitaratzen zuen emakume bakarra izan nintzen. Amaia Lasak beste bide bat hartu zuen eta gero etorri ziren Itxaro Borda eta besteak. Ez dakit, nik asko irakurtzen nuen eta asko irakurtzen nituen beste emakumeen lanak. Ez zitzaidan inoiz burutik pasatu emakume batentzat idaztea ezinezkoa zenik. Seguru asko, norbaitek esan izan balit hori ezinezkoa zela, ez nukeen egingo, baina ez zidan inork esan. Nik irakurtzen nituen liburu asko ziren emakumeek egindakoak, eta ez nuen kontraesanik ikusten. Iruditzen zait gauza asko ez ditugula egiten, ez debekatzen dizkigutelako, baizik eta ausartzen ez garelako. Eta ni ausartu egin nintzen. Sasoi hartan, taldeko beste norbait sentitzen nintzen ni.

**Orain, egoera bestelakoa da. Emakume sortzaile askoren lanak ikusten ditugu liburu dendetako erakusleihoetan.**

Hala ere, oraindik gutxiengoa gara, baina ez salbuespena. Gainera, gurean emakume kopurua txikiagoa da inguratzen gaituzten kulturetan

baino. Asko dira ezerezarekin konparatuta, baina oraindik bide handia dago egiteko. Gertatzen dena da literaturak ez duela bizitzeko ematen. Hori bistakoa da eta lanbide bat beharrezkoa da. Ni hasi nintzenean, gehiengoa apaiza zen. Orain, gehienak irakasleak dira. Beraz, ikusi. Batetik, lanbide bat izan behar duzu. Nire kasuan, kazetaritza. Familia bat ere badaukazu, eta, gainera, denbora luzea eskatzen duen zaletasun bat daukazu. Hiru gauza horiek uztartzea ez da erraza. Nik jakin gurako nuke nola osatuko duten nahasketa hori orain hasi diren gazte askok.

**Alardeak ukatutako plazara liburua argitaratu berri dute eta zuk zeuk ere baduzu alardearen gaineko esperientzia jasotzen duen bat argitaratuta. Gai bereziki mingarria zuretzat.**

## **"NIRE BIZITZAN GAUZA GUTXIK IZAN DU HONDARRIBIKO ALARDEAK IZAN DUEN ADINAKO GARRANTZIA"**

## **"EZKERRETIK DATOR BATUAREKIKO KRITIKA, TXOKOKERIAK LEHEN PLANORA EKARTZEA"**

## **"ASPERTU EGITEN NAUTE HITZEN GAINEKO EZTABAIDEK; HORI ESAN DEZALA EUSKALTZAINDIAK"**

*Bidean ikasia* da nire liburua eta bertan jaso nuen alarde parekidearen aldeko defentsan izandako esperientzia. Nire bizitzan gauza gutxik izan dute horrek adinako garrantzia. Une honetan beteko dira 25 urte Hondarribian hasi ginenetik eta oraindik ez dugu helburua lortu. Horrek adierazten du kontrakoak bezain kaskagorrrak garela gu. Haiek ez dute amorerik eman eta guk ere ez. Jende oso gaztea inguratu zaigu Jaizkibel konpainiara azken urteotan, handitu egin da izugarri eta horrek, nola-hala, etorkizuna bermatzen du.

**Zu zeu kazetari zara. Zer nahiago, kazetari lana ala sortzailearena?**

Kazetaritza besteek egiten edo esaten dutena kontatzea da. Hori besterik ez. Alegia, besteen

bizitza kontatzea. Literatura, berriz, barrura begiratzea da. Eta zure barruan bakarrik dagoen zerbait paperean jartzea. Niri, bi begiradak gustatzen zaizkit eta ez nuke ez bata ez bestea utziko. Ez dut aukerarik ezta ere, literaturak ez baitit bizitzeko ematen.

**Literaturak ez du, beraz, bizitzeko ematen.**

Begira... duela urte mordo bat, 20 bat urte izango dira, Durangoko Azokara joan nintzen atera berri nuen liburu batekin. Gure semeak 8 edo 9 urte izango zituen. Argitaletxeetan, liburu bat saltzen den bakoitzean, marratxo bat ipintzen da, zenbat saltzen diren kontatzen joateko. Nik esan nion nire semeari: "Begira, horietako marra bakoitza kafe bat hartzeko adina da". Semeak esaten zidan: "Ama, zortzi kafe. Ama, hamabi". Hori etxean



gelditu zaigu. Azkenengoz Durangotik etxera etorri nintzenean esan zidan: "Zer, ama, kafe asko?". Eta bururatu zitzaidan azken liburuarekin kontuak ateratzea. Jakin gura nuen ea liburu bakoitzak ematen zidan kafe baterako. Bada, erantzuna da ezetz. Ez, behintzat, autobus geltokian hartzen dudana kafea ordaintzeko lain. 1,35 ordaintzen dut kafea. Liburu berriena saltzen dudana aldiko ez dut euroa lortzen.

**Zelan ikusten duzu gaur egungo euskarazko literatura? Osasun onean? Zertan aldatu da zure hasiera haietatik?**

Nik literatura ikusten dut, gure historia guztian, bost mendeetan izan dugun egoerarik hoberenean. Besteak beste, mendeetan eta mendeetan gure lanak ez dira beste hizkuntza

batzuetara itzuliak izan. Guretat eginak ziren eta hemendik kanpo ez zuten interesik. Hori XX. mende bukaeran aldatu egin zen eta orain, gure liburu asko beste hizkuntza batzuetara itzultzen dira. Gainera, lehen ere esan dut guk ez genuela irakurlerik hasi ginenean. Baina ez soilik guk. Lauaxetak eta Lizardik, adibidez, gerra aurreko poeta handiek, ez zituzten ehun irakurle izango. Horrela izan da beti. Orain, irakurleak ditugu; are gehiago, irakurle antolatutak ditugu. Literatur taldeetan parte hartzen dutenak. Eta hori da literaturari azken urteetan gertatu zaion gauzarik hoberena.

**Irakurleei dagokienez, baina, azken datuek diote euskal herritarren %6 direla euskarazko liburuen ohiko irakurleak. Ez zaizu kezkatzeko moduko datua iruditzen?**

Iruditzen zait, eta hau idazle batek ez luke esan behar baina nire ustea da, pertsonak, pertsona izateko, animaliek ez bezala, historiak behar dituztela. Entzun eta kontatu. Batzuk espezializatuko dira entzuten eta beste batzuk, kontatzen. Eta historia horiek mende eta mendeetan etorri zaizkigu ahoz aho. Gero etorri zen inprenta eta horrek ekarri zuen historiak bideratzeko beste sistema bat. Eta gero, XX. mendearen hasieran sortu zen orain gailendu den historiak kontatzeko sistema bat; alegia, ikus-entzunezkoena. Garrantzia duena historia bera da. Entzun eta kontatu. Jaso eta zabaldu. Euskarria bigarren mailako kezka da.

**Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain egin zaitu. 1983a ezkerro zara euskaltzain urgazle. Euskararen alde egindako lana aitortzeko modu polita, ezta? Gustura hartu duzu?**

Bai, horixe. Behin baino gehiagotan eskaini izan didate euskaltzain oso izateko aukera. Baina beti uko egin diot, nik ez daukadalako hizkuntzaren inguruko hausnarketa zientifikorik. Ni ez naiz aditua, aritua baizik. Eta ohorezko hori horientzat da; alegia, arituentzat.

**Aditu izateak ez dizu interesik sortzen?**

Batere ez. Aspertu egiten naute hitz baten edo bestearen gaineko eztabaidek. Hori esan dezala Euskaltzaindiak. Kontu honetan bi eratako pertsonak daude: batzuk txoriak dira eta beste batzuk, ornitologoak. Eta ni txoria naiz. Eta ez dakit apenas ezer ornitologiari buruz. Noski, txori tontoa ez naiz, aritu izanak zerbait irakatsi dit, baina ez daukat hausnarketarik horren inguruan. Nik Ibonek edo Euskaltzaindiak esaten duenari, amen. ■■■

# 'Lotan nago, begiak itxita...'

LOA HAURTZAROAN



**JABIER AGIRRE** PEDIATRA

ARGAZKIAK: TIM BISH

Lo premiak aldatuz doaz umearen adinaren arabera eta beti ez da beharrezkoa izango umeak lo egitera behartzea. Lo egitea garrantzi handikoa da amets egiteko eta, bide batez, umearen eguneroko bizimoduko gertaerak prozesatzeko. Loaldi egoki batek haurraren ongizate psikologikoa errazten du, beraz.

Ondo lo egiteak lotarako ohitura egokiak edukitzea eskatzen du eta gure seme-alabei ohitura on horiek irakastea gurasoen erantzukizuna da. Hala, garrantzitsua da errutina ezartzea: ohera joan aurretik atsedendia uztea, baina egunero, ahal dela, oheratzeko ordu berari eutsiz. Bai umearendako baita gainerako familiakideendako ere 15-30 minutuko errutina izan daiteke aukerarik hoberena.

## Ume jaioberriak

Jaioberri batek 16-19 ordu bitartean egin ohi ditu lo egunero, guztira. Normalean, bi-hiru orduz behin esnatzen dira jateko, eta, goseak eraginda esnatzen direnez, ez dituzte lau edo bost ordu baino gehiago

ematen jarraian lotan. Hori da jaioberriei eman beharko luketen denborarik luzeena, baraualdi oso luzeak saihesteko. Hala ere, lasai; izan ere, umea normal eta sano dagoen bitartean, dena ondo doa. Dena den, umeak elikadura-premia bereziak badauzka –pisua galdu badu, behar adina pisu irabazten ez badu...–, gerta daiteke bi-hiru ordutik behin esnatu beharra izatea jaten emateko; kasu horretan aurkituz gero, pediatrik esango du nola jokatu.

## Hiru hilabeteko haurra

13-15 ordu egiten ditu lo egunean, guztira. Bost bat ordu egunez eta gainerakoak, gauez, kontuan izanda behin edo bitan esna daitekeela gauean. Gauez jaten ematea edo aldatzea tokatzen denean, gurasoek bizkor eta isilik jarduten saiatu behar dute, ahalik eta argi gutxienarekin eta umeari hitz egin edo berarekin jolasean aritu gabe, berriz lokartu dadin. Gurasoek erakutsi behar diote haurrari gauez ez dela ezer berezia gertatzen, berba egin eta jolasean aritzeko garaia egunez dela. Haurtxoari berdin dio gauez lo egin eta egunez esna egotea, edo alderantziz. Gurasoek erakutsi behar diote

zein den jokatzeko modurik egokiena.

## Sei-hamabi hilabeteko haurra

Sei hilabetetik urtebetera bitarteko haurrak 12-14 ordu ematen ditu egunean lo, guztira. Umea oraindik gauez esnatzen bada, ondo legoke gurasoek bost bat minutu pasatzen uztea, ea umea bere kasa lokartzen den ikusteko; baina, betiere, umeak ezer txarrik ez duela ziurtatu ondoren, noski. Denborarekin gurasoek ondo ikasiko dute haurraren negar-mainak bereizten. Ferekatu umearen bizkaraldea suabe-suabe, hitz egin ahots apalez, lasaitu dadin, zu berarekin zaudela esanez. Agian, izango du gustuko jostailu edo arroparen bat, gauez beso artean eduki eta lasaitzeaz gain seguruago sentiaraziko duena.

## 1 eta 3 urte arteko haurra

10-12 ordu egin ohi ditu lo egunero. Dena den, umea aldeztu aurretik prestatzeko ideia ona izan daiteke ohera joan aurretik errutina egoki bat ezartzea; horrela, oheratzeko ordua gertu dagoela jakingo du.

## Eskolaurreko haurra

4-5 urte arteko ume batek ere 10-12 ordu egingo ditu lo





## ONDO LO EGITEAK OHITURA EGOKIAK ESKATZEN DITU; GURASOEI DAGOKIE ERRUTINA EZARTZEA

egunero, baina honezkero ondotxo ezagutzen ditu lotarako eta ohera joateko errutinak. Gaueko amesgaiztoak izan daitezke sasoi honetan kontuan hartzeko nobedadea. Amesgaizto batek eraginda umea negarrez hasten bada, erosotasuna eta segurtasuna eman behar zaizkio. Gurasoak umearen gelara joan, bizkarraldean igurtzi batzuk egin eta lasai-lasai hitz egingo diote. Ez galdetu ezer amesgaiztoaz, umea ez baitago erabat esna, normalean, eta berriro lokartuko baita, gurasoa bere ondoan sumatzen baitu. Umea ez da ezertaz oroituko biharamunean.

### Eskolara doan haurra

Eskolara doan umearen kasuan, loa helduenaren oso antzekoa

da eta lotarako orduak soilik gauekoak izaten dira. Hala, eskola-adinean dagoen ume batek hamar bat orduko loaldia egin beharko luke gauero. Lotarako ordua erabakitzeko, garrantzitsua da pentsatzea umeak zer ordutan joan behar duen hurrengo egunean eskolara eta zenbat denbora behar duen goizean prestatzeko eta eskolara iristeko. Umeak ez badu dagokion loaldia egiten, ez du errendimendu onik izango eskolan eta arazoa izango dugu goizero ohetik ezin aterata. Ohera joateko ordu egokia zein den umearen osasunari eta ongizateari erreparatuta erabakiko dute gurasoek kasu bakoitzean.

### Lo nahikoa egin ezean...

Erabili zentzu apur bat. Begiratu umeari: itxuraz

deskantsatua, sano badago eta behar bezala hazten ari bada, behar adina lo egiten duen seinale. Zenbat lo egiten dute gainerako familiakideek? Normala baino gehiago edo gutxiago? Lotarako orduen premia handiagoa edo txikiagoa gurasoengandik jasotzen den kontu bat da, hortik atera kontuak.

Bestalde, badira umetan nahiko usuak diren loaldiko trastornoak, beldurrekin, gaueko esnatze-aldiekin, arazo medikoekin eta familia barruko arazoekin ere lotuta egon daitezkeenak. Ez dira ahaztu behar trastorno horietan eragina izan dezaketen giro-baldintzak ere: argia, zaratak... Arazo horiek helduaroan ere jarrai dezakete, eta horregatik komeni da garaiz detektatu eta konpontzen saiatzea. ■

# Arabako paraje ederretan

MARIXEKA-ALBINA URTEGIA-MARIXEKA MENDI IBILALDIA

## ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: MIKEL OTERO

Albina urtegiaren parean dagoen parking bakarrean utziko dugu autoa. Errepidea zeharkatu eta Kruzeta aldera egingo dugu, erromara batekin topo egin arte. Erromara zeharkatu eta bertan jaiotzen den bidetik eskuinaldera egingo dugu. Jarindora begira dagoen bide hori jarraituko dugu, bidegurutze nabarmen batekin topo egin arte. Han, ezkerreko joango gara. Pista hori jarraituko dugu 500 metro inguru, ezkerrean ehiza postu bat agertu arte. Pista utzi eta ehiza postu aldera joango gara. Parean gaudela, bidexka bat ikusiko dugu, zuzen gorantz doana. Bidexka horretatik jarraituko dugu, lehen utzitako pistarekin topo egin arte. Pista

zeharkatuko dugu eta zuzen gorantz jarraituko dugu. Gero, basoan sartuko gara, eta bidea erdi galtzen da. Zuzen joango gara. Momentu batean, mugarri baten ondoan bidea nabaritu dugu zuzen doala, baina guk mugarri horren parean bidea utzi eta baso barnean jarraituz ezkerre aldera egingo dugu, beti gandra jarraitzen. Ia goian gaudenean, pagoak pinudi bihurtzen dira eta aldapa baretu egiten da. Zuzen jarraituko dugu, pinudia bukatu arte, eta zela batean sartuko gara, gure parean tontorra ikusi arte. Tontoretik, Gorbeia, Anboto, Udalatx, Kurtzebarri, eta abar ikusten dira.

Beharrezkoan, erpin geodesiko bat pasatu, eta gure azpian Albortia aldera doan pista bat ikusiko dugu. Hori hartuko dugu, berehala pinudi

batekin topo eginez. Bidea eskumara doa, baina parean erromara bat dago. Erromara zeharkatu eta pinudi barnean sartuko gara. Apenas ikusten da biderik, baina zuzen jarraituko dugu norabide berean eta berehala agertuko zaigu bide zabal bat. Hori jarraitu eta eskumatik hasieran gutxi ikusten den bide bat hartu behar dugu -90 gradu biratuz-. Hainbat errebueltaren ostean, ia Albina urtegiraino doan bidea jarraituko dugu. Urtegiara heldu aurretik, zuzen jarraituko dugu bide hori utziz. Goraka goaz bide zabal berri horretatik, eta bidegurutzean ezkerreko jarraituko dugu, Albina aldera. Urtegia inguratzen duen bidara irtengo gara. Hiru kilometro egin eta hasierako bidegurutzea agertuko zaigu, eta hortik Marixekara joango gara. ■


## Fitxa teknikoa

- **Distantzia** 10,92 km.
- **Iraupena** 3 ordu inguru.
- **Zailtasuna** Erraza.
- **Ibilbidea** Zirkularra.
- **Seinaleztatuta** Ez.
- **Bide mota**  
Basoko pista eta bidexkak.





Anboto, Orixol, Ipizte eta Udalatx tontorrak.



Marixekako ermita.



Gorbeia, azpian Albina eta Urrunaga urtegiak dituela.



# Inbertsiorik onena

UMEEN HEZIKETA



**JUANKAR ALONSO** PSIKOLOGOA

ARGAZKIA: JUDE BECK

Seme-alabak hezterakoan denbora da oinarri garrantzitsuetako bat. Modu egokian hezteko denbora edukitzea ezinbestekoa da. Denbora euren oinarrizko zainketak bermatzeko, ohiturak eta autonomia sortzeko, arauak eta mugak argi finkatzeko, jarrera edo portaera desegokien ondorioak ezartzeko; denbora, gure seme-alabekin komunikatzeko, entzuteko, beraiekin jolasteko, gure afektibitatea adierazteko eta lotura afektibo sendoa sortzeko; denbora, emozionalki hezteko, gure eta euren sentimenduak partekatzeko, balioetan hezteko, eurak behatzeko... Zenbat gauza, ezta? Bai, hezteak haxe da, eta, horretarako, gure seme-alabek gure presentzia behar dute. Beraz, ezin da hezi denborarik gabe.

## Denbora beharrezkoa da

Denbora behar dela argi dago, baina hobe kalitatea kantitatea baino? Hausnar dezagun, galdera honi erantzun baino lehen.

Denborarik ba al daukagu gure seme-alabekin egoteko? Zerk kentzen digu denbora? Eta gure seme-alabek ba al daukate denborarik gurekin egoteko? Zerk kentzen die denbora? Nolako da gure asteko ohiko ordutegia? Eta euren? Zenbateraino daude eskolaz kanpoko ekintzekin *gainezka*? Eta teknologia berriei zenbat denbora eskaintzen diete? Eta guk zenbat denbora eskaintzen diegu?...

Kantitateari dagokionez, denbora minimo bat hartu behar dugu gure seme-alabak hezteko. Baina egun daramagun bizitzak, gure lanaldiak, ahalbideratzen digu egin behar hori? Haur askok, gaztetxo askok, denbora luzea bakarrik pasatzen dute, ez dira gutxi haur *giltzadunak* deritzenak. Etxean sartu eta etxean inor ez. Baina gure seme-alabek gurekin egon nahi dute.

Eta egon nahi dute, mutil hark bere aitarekin egon nahi zuen bezala: bolada bat zeraman bere itsulapikoan txaponak sartzen, aitari galdetu zion arte: "Aita, zenbat diru irabazten duzu orduro?".



Aitak erantzun ondoren eta itsulapikoan aurreztu zuenarekin zifra horretara justu-justu iristen zela baieztatu zuenean, aitari esan zion: "Zure denboraren ordu bat erosi nahi dizut, bihar zurekin jolasteko eta gero afaltzeko".

Horren harira, guraso moduan, agian, nire lanaldia, nire bizitza soziala edota aisialdia egokitu egin behar

## GURASO MODUAN NIRE GORABEHERAK ALDE BATERA LAGA BEHAR DITUT UMEARI NIRE DENBORA ESKAINTZEKO



ditut; guraso naizen unetik zerbaiti uko egin beharko diot nire seme-alabekin egoteko aukera gehiago izateko.

### **Kalitatea oso garrantzitsua da**

Baina egia da, kantitatea ez da aski. Denboraren kalitatea ere oso garrantzizkoa da. Nola gaude gure seme-alabekin gaudenean? Nola uztartzen dut nire lan-bizitza nire bizitza pertsonalarekin guraso

moduan? Guraso moduan, nire lanaren gorabeherak, arazoak, tentsioak, nekea... alde batera utzi beharko nituzke modu egokian nire seme-alabari nire denbora, nire presentzia *erabatekoa* eskaintzeko. Zeren egon, egon naiteke bere ondoan, baina ez da aski fisikoki egotea; osotasunean, bereziki, egotea da kontua.

Ez dakigun gerta aita bati bezala, alabari esan zionean:

"Badakizu, maitea, zuretzat beti izango dudala denbora"; egunkaria irakurtzen ari zen bitartean.

Merezi du gai hau aintzakotzat hartzea. Gure denboraren inbertsiorik hoberena gure familia da, gure seme-alabak dira. Horregatik, baloratu egin behar dugu maite ditugun pertsonekin pasatzen dugun denbora. ■■■



# Tartufo jatetxean askotariko entsaladak



**JON ANDER EIZAGIRRE** SUKALDEBURUA  
ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Hamar urteko esperientzia daukagu ostalaritzan eta eskerrak eman nahi dizkiegu Bergarako San Juan auzoko Tartufo jatetxera etortzen diren bezero guztioi. Betiko moduan, lanean jarraituko dugu bezero guztiak etxean bezala senti daitezen gurean.

## Menuak, egunero

Astelehenetik domekara bitartean eguneko menua

izaten dugu, astean zehar 12,50 euro balio duena kafea barne, eta asteburuetan 14 euroren truke eskaintzen duguna. Asteburuetan menu berezia ere izaten dugu, 22 euro kostatzen dena.

Menu berezian, besteak beste, hurrengo orrian datorren txangurru-entsalada izaten dugu. Gainera, horrez gain, onddoak, gulak eta ganboia daraman Tartufo-entsalada epela ere eskaintzen dugu. Bestetik, parrila ere zabalik daukagu, eta, eskua hartuta

diogunez, bezero asko txuleta ederrak jatera etortzen dira. Uda garaian, terrazan jateko aukera dago.

Jangelak 130 lagunendako tokia dauka eta tratua oso etxekoa izaten da beti. Asteburuetan, gauetan, gainera, taldeen erreserbendako, zabaldu egiten dugu Tartufo.

Lorategiak eta aparkalekua ere badauzkagu; asteburuetan eguerdietan umeentzako jolas txoko bat moldatzen dugu, neska-mutikoak jolasean lasai ibil daitezen. ■■■

## Tartufo jatetxe

- **Helbidea:**  
San Juan auzoa 35, Bergara.
- **Webgunea:**  
Tartufobergara.com.
- **Telefonoa:**  
620 773 383 edo 943 76 35 51.
- **Facebook:**  
Facebook.com/Tartufo.Jatetxea.
- **Posta elektronikoa:**  
tartufo@tartufobergara.com.



**TARTUFO JATETXEARI ESKER**  
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



## Txangurru-entsalada

### Osagaiak (Lagun batendako)

- Txangurru-okela egosia, 200 g
- Patata, 1
- Tipula erdia
- Piper gorria, 1
- Berakatza, buru 1
- Kofia, zorrotada 1
- Piper txorizeroa, 1
- Gurina, pixka bat

### Prestaketa

1. Erdi-egosi tipula, piperra eta berakatza zati txikitan eginda, gurin apur batekin.
2. Gero, gehitu horri aurretik egositako txangurru-okela. Utzi su baxuan 5-10 minutuz.
3. Egosi patata.
4. Molde batean jarri patata egosi zatitua behean, gainean txangurrua eta goian patata zati batzuk, argazkian ikusten den moduan.
5. Atera platerera, alboan jarri letxuga pixka bat, eta apaindu oliba beltzekin, txip erara frijitutako tipula apur batekin eta perrexilarekin.

Zailtasuna: • • • • •

## Aurreko zozketako irabazlea: Kontxita Bilbao Mujika (Bergara)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Uda, katu-begiradarekin

EGUZKITAKO BETAURREKOAK

## MAIDER ARREGI

ARGAZKIAK: INSTAGRAM ETA THE SARTORIALIST

Eguzkiarekin batera ezinbesteko osagarri bilakatzen dira eguzkitako betaurrekoak. Askotariko forma eta koloreak daude merkatuan, baina joera izan nahi duenak uda honetan, nahi eta nahi ez, katu-begi formako betaurrekoak jantzi beharko ditu. *Vintage* ukituak indar handiarekin jarraitzen du modaren esparruan eta katu begi formako betaurrekoak ezin egokiagoak dira ukitu berezi hori lortzeko.

"Ertzetako puntak gorantz dituzten betaurrekoak daude puri-purian. Edozein estilorekin nahastu daitezke, gainera; baina nik neuk *retro look* indartsu batekin konbinatzea dut gustuko: estanpatua daraman alkandorekin eta kanpai-formako prakekin, adibidez", proposatu du Eneko Prat *influencer* debagoiendarrak.

Aipaturiko katu-begi formako betaurrekoak dira udaberriko eta udako izarrak. Eta estetika horrekin batera, zuri koloreko marko sendoa daukatenak dira ausarta eta originala izan gura duenarendako betaurrekorik "aproposenak".

"Neskendako ere joera dira betaurreko handiak. Baina, kasu horretan, *txoni* estetikari keinu egiten diotenak. Gogoratzen duzue Dior etxeak

atera zituenak? Bada, estilo hori mantentzen dutenak.

Mutilendako, esan bezala, *vintage* estetika da nagusi; betaurreko txikiak eta 90eko hamarkadan koloretako kristalak zeramatzatenak".

Emakumezko *look* baten gomendioa ere egin du moda aditu bergararrak: "*Retro* estiloko minigona bakeroarekin edo kanpaitzarra duten prakekin eta korapiloa zilbor gainean daraman alkandora mahuka luzedunarekin konbinatu daitezke".


## Koloretako kristala, 'ez mesedez'

Koloredun kristalak dituzten eguzkitako betaurrekoak pasa-pasata daudela azpimarratu du @withthehorse moda *influencer*-ak. Eta, koloretan izatekotan, begia ikusten den kristala dutenak dira joera: "Prodigy musika taldeak eta Elton John abeslari eta musikagileak eramaten zituztenak daude modan. 90eko hamarkadako kutsua dutenak eta sasoi hartara eramaten gaituztenak, alegia. Hamarkada hari keinua egiten diotenak. Bestea surf giroarako eta oso oinarritzko *look*-endako geratu da soilik; ez daude modan. Hondartzarako, beraz, egokiak dira, bai; baina, esan dudana, haien moda guztiz pasatu da", nabarmendu du.

Eta zuk... aukeratu dituzu udaberrian eta udan jantziko dituzun betaurrekoak? ■



Ertzetako puntak gorantz dituenak.



Marko zuria daramatenak.



Katu-begi deritzon formako moda-modako betaurrekoak.



Katu-begi formadun borobilduak.



Marko beltza dutenak.



# Presio aldaketaren fisika

AUTOA FRESKATZEKO GAKOAK

**XABI GOROSTIDI**

ARGAZKIAK: PIXABAY

Autoa goizean goizetik kalean aparkatuta. 18:30ak dira, eta 35 graduko tenperatuta. Autoaren bila zoaz eta eguzkiak bete-betean jotzen dio. Adorez bete, atea zabaldu, eta barruan mikroklima itogarri batekin egiten duzu topo.

Autoa gidatzen duen edonork egin behar izan dio aurre era horretako egoera bati. Autoa martxan jarri eta denbora laburrera konpondu daitekeen arazoa da, baina artikulua honen helburua da autoa fresko mantentzeko edo ahalik eta azkarren freskatzeko gako batzuk ematea.

## Japoniar trikimailua

Duela bizpahiru urte biral egin zen, Interneten, autoa hozteko japoniarrek darabilten teknika bat. Oso sinplea eta eraginkorra da, baina albotik trikimailua ezagutzen ez duen norbait pasatuz gero, zoro hutsa zarela pentsa dezake. Lehenik eta behin, autoaren leihatila bat behearaino jaitsi behar da, eta ostean, aurkako aldean dagoen atea zabaldu eta itxi behar da bost edo sei



aldiz. Gezurra badirudi ere, auto barruko tenperatura hamar gradu jaitsi daiteke honi esker. Presio aldaketaren fisikan oinarritzen da, aire beroa bulkada bidez kanporatzen delako.

## Leihoak jaitea

Arriskutsua iruditu daiteke, baina aparkatzerakoan, autoaren bi leihatila pixka bat jaitsita utziz gero, aire beroak kanporantz joko du, barruan infernuko





## AIRE GIROTUAREN GAS KARGA IKUSKATZEA GOMENDAGARRIA DA

temperatura izatea saihestuz. Efektu hori lortzeko, leihatilak 1,5 zentimetro jaistea nahikoa da, gehiago jaitsiz gero lapurreta jasateko aukerak handitu egiten dira eta.

### Aire-sistema ikuskatzea

Udaberriko lehen bero egunetan, sorpresak izaten dituzte auto gidari batzuek, aire girotuak ez du-eta behar beste freskatzen. Aire girotuak gas hoztailea behar du giroa

hozteko. Gas hori gastatu egiten da, eta gomendagarria da, beroa egiten hasi aurretik, gas horrek kargarik duen edo ez ikuskatzea.

### Kristalak iluntzea

Atzealdeko eserlekuetako leihatilak iluntzeak autoa freskoago mantentzen laguntzen du, baina Europako herrialde batzuetan debekatuta dago autoaren barrualdea ikustea galarazten duten kristalak izatea. Espainiako Estatuan, aurrealdeko kristala eta gidariaren eta kopilotuaren leihatilak iluntzea debekatuta dago.

### Oinarrizko gomendioak

Autoa gerizpean aparkatzea eta autoko kristalak itzalkinekin babestea dira oinarrizkoenak. Baina badira gehiago. Aire giroturik ez duten autoetan, airea irteten den lekuan oihal busti bat jarritz gero, aire freskoagoa irteten da. Eta beroa jasanezina denean, ilea, garondoa eta eskumuturrak bustitzea da onena, freskotasun sentsazioa lortzeko. ■

# Ane Ugarteburu

## OIHANA ELORTZA

ARGAZKIAK: LARRAITZ ZEBERIO

Margotzea oso gustuko du Ane Ugarteburuk (Elgeta, 1998). Lehen, koadro gehiago egiten zituen, baina arkatzekin marrazteari ez dio inoiz utzi.

**Tamaina txikiagoko lanak egiten dituzu orain.**

Margolanak egiteko espazioa behar da, tokia, eta baita denbora ere. Bilbon ematen dut astea orain, ikasketak egiten, eta ez dut lehen beste denborarik ezta espaziorik ere.

**Non margotzen zenuen lehen?**

Bergaran hasi nintzen pintura ikasten, Edurne Erañarekin. Asko erakutsi zidan eta asko

disfrutatu dut. Oso oroitzapen onak ditut. DBHko laugarren mailara arte ibili nintzen pintura eskolak hartzen. Gero, AEBetara joan nintzen, eta handik Bilbora. Lehen beste akaso ez, baina margotzen jarraitzen dut.

**Nolako margolanak egin dituzu?**

Normalean, paisaiak. Argazkiak hartu eta horiei begira egin izan ditut. Egia da kopiau arren gauzak aldatu egin daitezkeela. Esaterako, Times Square plaza bera aldatu egin daiteke margotu ahala, kolore biziagoak sartuz; orain arte, argazkiei begiratuta margotu dut, bai.

**Zein teknika erabili izan dituzu?**

Olioekin eta akuarelekin ibili izan naiz, adibidez. Erretratuak, berriz, arkatzekin egiten ditut. Bilbon, esaterako, koaderno



batean margotzen dut, eta arkatza erabiltzen dut gehienetan.

**Zuretako, zaletasuna da pintura?**

Asko gustatzen zait, bai, baina aukeratu ditudan ikasketek ez dute loturarik diziplina horrekin; Zuzenbidea ari naiz ikasten. Hala ere, bateragarriak dira, eta hartzen dut tarte margotzeko ere. Asko erlaxatzen nau eta pintura-koaderno askotan hartzen dut.

**Pintura erakusketetara joaten zara?**

Ez askotara, egia esan. Bilboko Arte Ederretako Museora joan izan naiz, baina erakusketa gutxi ikusi ditut.

**Lehiaketetara aurkeztu dituzu zure lanak inoiz?**

Behin, Elgetako liburutegiak antolatutako kartel lehiaketa batera aurkeztu nintzen.

AEBetan egon nintzen garaian ere aurkeztu nituen lan batzuk hango ekimen batzuetara, baina ez dut askotan egin, ez.

**Eta enkarguzko lanik egin duzu inoiz?**

Irene Kastelosen erretratua egin nuen, haren ahizpak eskatuta. Laguna dut ahizpa, eta ausartu egin nintzen. Haren argazki bat eman zidaten eta Bergaran pintura eskolak jasotzen nituen lokalera eraman eta han egin nuen lana. Hori izan da bakarra.

**Non dituzu egindako margolan guztiak?**

Batzuk zintzilikatuta ditugu eta beste batzuk, gordeta. ■■■



# Kolektiboan filmatutako hitzak

'GURE OROITZAPENAK': SARRIONANDIAREN IDATZIETAN OINARRITUTAKO FILMA

## AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: ADABAKI EKOIZPENAK

Joseba Sarrionandiaren obran oinarritutako film kolektiboa da *Gure oroitzapenak*. Mikel Arrendondok, Hibaí Castrok eta Lutxo Egiak osatzen duten Bilboko Adabaki ekoiztetxeak ekoiztu du; Elkar argitaletxeak, Gastibeltza Filmak eta Zenbat Gara elkarteak ere parte hartzen dute proiektuan. "Sarri iruditan agertzea dugu helburu, eta nola egin? Gure ustez, ez da egiten zuri-beltzeko harekin, edo 2016ko amaieran hedabideetan agertutako argazkiarekin. Poeta ez da ezer, bere obra ez bada; horregatik, Sarri iruditan jartzeko gure modua bere poemak, ipuinak eta eleberri bat zinemara ekartzea izango da", azaldu dute Adabaki ekoiztetxeak.

Ekimenaren ideia Kubatik etorri zen, 2016ko udan, Sarri-ren lagun Angel Azkarraga *Matxitxa*-ren eskutik. "Matxitxa-k eman zion oinarritzko forma, eta berak ekarri zuen ideia Euskal Herrira. Urte hartako udazkenean hasi ginen lanean. Ondo aztertu beharra zegoen proposamenak zer-nolako aukerak zituen eta zer bide egin zezakeen. Aurre-produkzio fasean bete-betean sartu ginen: filma irudikatzen, lehenengo aurrekontua zirriborratzen, finantziazioa nondik atera zitekeen pentsatzen...", dio Lutxo Egiak.

## Hamabi zinemagile elkarlanean

Musikagintzan ibilbide luzea duen *Matxitxa* –euskal musikari eta talde askoren managerra izandakoa– zinemagile batzuekin bildu zen, eta, Sarri-ren unibertso literarioa abiapuntu hartuta, film luze bat egitea proposatu zien; eta Adabaki ekoiztetxeak hartu zuen proiektua aurrera ateratzeko eginkizuna.

Eskarmentu eta ibilbide luzeko Euskal Herriko eta beste hainbat herrialdeetako hamabi zinemagileren film laburrekin osatu dute 90 minutu irauten

duen *Gure oroitzapenak* filma. Egile gehienak euskaldunak dira, eta horien artean daude Bergarako Mireia Gabilondo eta Asier Altuna *Kixi*. Bertakoez gainera, Turkiako, Parisko eta Habanako zinemagileek osatzen dute taldea.

## Piezak, elkarren artean josita

Zinemagile bakoitzak pieza bana sortu du. "Joseba Sarrionandiaren *corpus* literarioan murgil egin eta itsaso sakon bezain zabal horren puzzlea osatuz horrela. Hartara, Sarrionandiaren iruditeria poetiko eta literarioa zinema-lan luze batera bilduta agertuko zaigu lehendabizikoz. Istoriok istorio, Sarrionandiaren bisaiak osatu dugu", dio Egiak.

Autorearen hainbat elementu poetiko baliatu dituzte pieza horiek elkarren artean josteko eta, bide batez, batasun estetiko bat emateko. "Testu literarioak fikziora ekarri dituzte, kasu gehienetan, eta emaitzak elkarren ezberdinak izango dira oso, formalki zein estetikoki. Filmean toki eta aldi ezberdinak ezagutuko ditugu: Kurdistango Diyarbakirtik 80ko hamarkadako Bilbora joango gara; Parisko kale kantoietatik eta Gare du Nord tren-geltokitik, Dunkerqueko hondartzara; Lisboako giro goxotik, paisaia zurietara; I. Mundu Gerran, Baigorri ingurutik, Habanako arte modernoko galeria batera...".

## Filmeko zuzendariak

- Oskar Alegria (Iruñea)
- Özcan Alper (Turkia)
- Asier Altuna (Bergara)
- Mireia Gabilondo (Bergara)
- Eugene Green (Frantzia)
- Itziar Leemans (Donibane Lohizune)
- Josu Martinez (Bilbo)
- Fermin Muguruza (Irun)
- Ane Muñoz (Hondarribia)
- Maider Oleaga (Bilbo)
- Carlos Machado (Kuba)
- Maialen Sarasua (Orio)





Asier Altuna *Kixi*-k egin duen film laburraren fotograma bat.



Mireia Gabilondoren film laburraren fotograma bat.

### Emaiza, laster ikusgai

Ondo bidean, filma hilabete honetarako amaituta egongo dela uste dute. Muntaiako kontu txiki batzuekin batera, postprodukzioko hainbat lanekin ari dira orain, eta irailean filma erakusteko moduan izango dutelakoan daude. "Prozesua ondo joan da, baina konplexu samarra izan da, egia esateko. Azken batean, ez da bakarrik errodate desberdinak izan direla toki ezberdinetan eta baldintza ezberdinetan, baizik eta hamabi errodate-talde osatu behar izan

## ESKARMENTU HANDIKO HAMABI ZINEMAGILEK FILMA OSATU DUTE SARRIONANDIAREN IDATZIEKIN

## IDAZLEAREN ELEMENTU POETIKOAK BALIATUTA FILM LABURRAK BATA BESTEAREKIN LOTU ETA BATU DITUZTE

direla, eta horrek dakarren guztia. Produkzio aldetik, aurrekontu txikiko lan batean, horiek guztiak koordinatzea lan konplexua da, baina oso gustura gaude nola joan diren gauzak *Gure oroitzapenak* fikziozko film luze kolektiboan".

### Bergarakoen lanak

Asier Altunaren lantaldeak amaituta du dagokien lana: "Ehiztariak ehizatua bukatzen duen istorio bat da; *Sarri*-ren ohikoa den historia zirkular bat da. Urte hasieran grabatu genuen, bi egunetan, Pasaia San Pedron. Protagonista nagusiak 8 urteko bi haur dira, eta horiekin batera daude Sara Cozar, Haritz Lete, Urko Redondo eta Joseba Roldan. Proposamena egin zigitenean, ideia bat besterik ez zen, ez zegoen beste ezer antolatua; hortik pelikula bat osatzen bukatzea mirari bat dela esan daiteke. Oso esperientzia polita izan da eta irrikan nago besteek zer egin duten ikusteko".

Mireia Gabilondok dio azaro eta abendu bitartean Lisboan grabatu zutela: "*Sarri*-rekin lan egitea erakargarria eta polita da niretzako, askotan egin dut lan haren idatziekin. Oraingoan, ez nuen fikzio handi bat egin nahi, gauza txiki bat baizik, eta, semearekin Lisboan bizi den emakume baten istorioa oinarri hartuta, dokumental txiki bat egin dugu, gaur egun erbestea zer den kontatuta", dio. ■

# Altxor handiak, formatu txikian



## Amets egiteko ipuinak 1,2,3

**Argitaratzailea:** Kalandraka

**Argitaratze urtea:** 1998

**Generoa:** Haur literatura



**GEAXI EZPELETA** ELGETAKO  
LIBURUTEGIKOA

Hiru kutxatxo, bakoitzean 7x7ko hainbat liburutxo. Motxilan, poltsan eramateko tamaina egokia. Tarte bat daukazuenean, bakarka edo konpainian, ipuinez disfrutatzeko aitzakia. Etxeko txikiek tableta edo mugikorra eskatzen duten une horietarako alternatiba polita. Haurren asper uneak ikusiz, irakurriz, kontatuz, entzunez gozatzeko aproposak.

**Hiru kutxatxo**, 21 ipuin, 7 kutxa bakoitzean. Denak tamaina txikira moldatuta argitaratutako album ilustratuak. Kalandraka argitaletxeak *Amets egiteko ipuinak* goiburupean argitaratutako lanen artetik aukeratutako ipuinak dira kutxatxoan barruan aurkituko ditugunak. Kalitatezko ipuin nahiz ilustrazioz hornitutako argitalpenak.

**Hiru kutxatxo**, txikiak, baina altxor handiz beteak. Klasikoen nahiz ipuin tradizionalen egokitzapenak eta ipuin originalak aurkitu daitezke izenburuen artean: *Erregearen traje berria*, *Kukurruku oilarra*, *Patxiku*, *Mazapanezko gizontxoa*, *Hamelingo txirularia*, *Ez da erraza*, *Katagorri*.

**Hiru kutxatxo**, hainbat aukera. Zure gogokoena zein ote da? Nik baditut batzuk... *Amets egiteko ipuinak 3* kutxako bi aipatuko ditut, gainera. Bata, *Amama eta aitita*. Chema Heras idazlearen eta Rosa Osuna ilustratzailearen lana. Bizkaierazko testua nabarmentzen da. Ipuin ederra

**HIRU KUTXATXO,  
21 IPUIN, 7 KUTXA  
BAKOITZEAN; TXIKIAK,  
BAINA ALTXOR HANDIZ  
BETEAK**

benetan, hunkigarria. Maitasuna, zahartzaroa, konplizitatea. Eta bestea, *Euli Firiren festa*. Eva Mejuto idazlearen eta Sergio Mora ilustratzailearen lana. Erritmodun testua, irudi adierazkorak. Errusiako herri ipuinean oinarritutako ipuin polita.

**Hiru kutxatxo**, euskaraz. Beste hainbat kutxatxo beste hizkuntza batzuetan aukeran. Galegoz, katalanez eta gazteleraz ere argitaratuta daude amets egiteko liburutxoez osatutako kutxatxoak. Album ilustratu desberdinez hornituak, baina, funtsean, denak altxor handiak, formatu txikian.

Gurean baditugu aipatutako hainbat kutxatxo, ipuin ugari, txandaka, okasio desberdinetan, hara eta hona erraz mugitzen ditugunak; eta, egia esan, han eta hemen, elkarrekin gozatzen ditugu formatu txikiko altxor handiok. ■



15 produktu sorta ditugu zozketatzeko

Esne Behien Interpretazio Zentroa bisitatzeko gonbidapenak ditugu zozketatzeko

- Publiko guztientzat egokituak.
- Jaiegunak ez diren urteko larunbatetan eta igandeetan izaten dira.
- **NAHITAEZKOA DA HITZORDUA ALDEZ AURRETIK ESKATZEA** (telefonoa: 948 60 04 49)
- Telefono-bidezko arretarako orduak: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara.
- Lacturelek Etxeberri Arakilen duen Esne Behien Interpretazio Zentroan

Informasi lengkap (LPI) 15/10/2018 mengenai sistem pelayanan kesehatan yang ada di perusahaan dapat ditemukan di [www.bptk.kemkes.go.id](http://www.bptk.kemkes.go.id). Untuk informasi lebih lanjut, silakan ke [info@bptk.kemkes.go.id](mailto:info@bptk.kemkes.go.id).

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denek irabazle!

# Areantzako baseliza kutuna

SAN BIZENTE BASELIZA, ARETXABALETAN

**MIREIA BIKUÑA**

ARGAZKIAK: M.B.

Hamasei baserri eta 30 bat biztanle ditu Aretxabaletako Areantza auzoak; eta bi ermita: Jasokundeko Andre Mariarena eta San Bizenterena. Lehena, handiagoa, eta egun erabiltzen dena. Bigarrena, txikiagoa, hilerria sarreran duena, eta auzotarrendako kutunena. "Guretzat, San Bizente, San Bizente da. Txikineko baserriko Faustinori entzundakoa da, hasieran, San Bizente zela Areantzako eliza bakarra. Ostean eraiki zen Jasokundeko Amarena, auzoa handitu zenean. Horregatik da kutuna guretzako", esan du Julen Abasolo auzotarrak.

## Hilerria, sarreran

Areantzako gain batean dago San Bizente baseliza. Burdinazko ate batetik dauka sarrera. Eta elizara sartzeko, auzoko hilerria gurutzatu behar da. Bitxia. "1895eko dokumentu batek zehazten zuen hilerriek elizetatik kanpo egon behar zutela. Debekatu egin ziren, higie-ne kontuengatik. Hori horrela, Areantzan erabaki zen hilerria San Bizente aurrean ipintzea. Baseliza barruan oraindik badaude gorpuzkiak", dio Abasolok.

Egun, oraindik ere erabiltzen da hilerria. Hamabi gorpurentzako lekua dago, baina auzotarrek ez dute leku

propiorik jabetzan. Ez dago nitxorik han. Lurrean lurperatzen dituzte, hurrenkeran.

## Belea falta zaio

Baselizan sartu eta han dago San Bizenteren irudia, aldarearen erdian. "XIII. mendeko irudia eta sagarrondo egurrez egindakoa", diote adituek. Irudiari, baina, atributu bat falta zaio: belea. "Istorioak dio San Bizentek liburua eta belea dituela eskuetan. Hilzoriar zegoenean, bele batek bihotza kendu ei zion San Bizente martiriari. Baina Areantzakoari belea falta zaio", kontatu du Abasolok. Era berean, auzotarren artean ahoz aho pasa den kontakizunak dio San Bizente martiria, jaiotzez, Barbastrokoa (Huesca) zela. Baina Areantzako azken parroko On Simonek beti aldarrikatzen zuen San Bizente "martiri euskalduna" zela. "Urtarrilaren 22ko ospakizunetako elizkizunean esaten zuen martiri euskalduna zela, hura jaio zenean Barbastron euskaraz egiten zelako".

## SAN BIZENTEREN OMENEZKOA DA BASELIZA ETA AUZOKO HILERRIA DAUKA SARRERAN

## Elementu bitxiak ditu

Erretaula bako eliza txikia da. Apenas dauka apaingarririk: aulki eta margolan batzuk, besterik ez. Bada, baditu bi elementu bitxi. Biak, egurrezko sabaitik zintzilik daudenak. Egurrezko sabaira lotuta, alegia. Hilotzak garraiatzeko andak dira biak ala biak. Zaharrena, egurrezkoa: 1804an Lino Uribek egin zuena. "Gaur egun, hilkutxak erabiltzen dira, baina, XIX. mendean, gorpuak izara batekin estaltzen ziren, eta alde batetik bestera garraiatzeko andak erabiltzen zituzten. Dena den, auzoan ez da horren erabilera inoiz ikusi. Beti egon da baselizan zintzilik", esan du Areantzako bizilagunak. Ardantza baserriko Patxik kontatzen ei du pertsona bakarrak erabili zuela anda hori: apaiz batek alegia. Baselizan dagoen beste anda, hilkutxak eramateko erabiltzen zen, eta burdinazkoa da.

## Kanpaiaren soinu bitxia

Oso ezaguna da Areantzako kanpai-jole eskola. Kanpaiak dituzte bi elizetan. San Bizenten dagoenak soinu berezia zuenaren ustea izan dute beti auzotarrek. Bada, kanpaien gainean, Aretxabaletan egindako erakusketa baterako kanpaia lekutik kendu eta printzatuta zegoela konturatu ziren. "Horregatik egiten zuen soinu berezia. Ez kanpaia berezia zelako", dio, ■■■





Hilerría, San Bizente basilizaren sarreran.



San Bizenteren irudia, basilizako aldarean.



Hildakoak garraiatzeko egurrezko anda.

# Hitzaren balioa



OIHAN VEGA

**G**arai batean, eskolan ikasi genuen egunkaria idatzitako papera zela, irratia ahotsa, eta telebista irudia. Baina gaur egun ez da horrela, komunikabide guztiguztiek irudiak erabiltzen dituzte. Hedabideetako web orri eta aplikazio guztietan topa ditzakegu bideo ugari.

**Gure** politikariak, horren jakitun, irudi horietaz baliatzen dira euren adierazpenak egiteko, sinesgarritasun handiagoa ematen baitu euren hitza zuzenean entzuteak kazetari batek kontatzeak baino. Baina politikari baten hitzak baliorik al du? Azken asteotan jaso ditudan irudietan oinarrituz, gure inguruko alderdi garrantzitsu bakar batek ere ez du bere hitza bete.

**Has** gaitezen Alderdi Popularrarekin (PP). Hitz eman zuen ez zuela *Gurtel* kasua ezagutzen, Rajoy presidentea bera lekuko gisa joan zen epaiketara, eta orain, epaileek esan dute ez dituztela haren adierazpenak sinisten, eta, beraz, PP kondenatu egin dute. Espainiako presidente jauna gezurretan aritu da epaitegi batean egiaren aldeko juramentua egin ostean! Demokraziak, jaun-andreok, hondoa jo du.

**PSOE** ere ez da libratzen. Zenbat aldiz jan du Sanchezek



FLICKR / PMK

"ez beti da ezetz" esaldi famatua? Interesen arabera, PPren kontra jotzen du, baina gero, bizkarretik, harekin adosten ditu, esate baterako, jubilatuen pentsio ziztrin eta miserableak.

**Podemosen**, hautsak harrotu ditu Pablo Iglesiasen eta Irene Monteroren etxe handiak. Nire ustez, eskubide osoa dute euren diruarekin nahi dutena erosteko, betiere, diru hori era zintzoan irabazi badute. Baina noski, duela bi urte Iglesiasek

**HITZA DESAGERRARAZI  
EGIN DUTE  
POLITIKARIEK, ETA EZ  
DUT USTE DEMOKRAZIA  
HAU MEREZI DUGUNIK**

kritikatu egin zuen 600.000 euroko etxea erosi zuen politikari bat, eta erabat inkoherentea da, orain, berak prezio bereko etxea erostea. Hitzaren balioa, lagun, zenbat balio du politikari baten hitzak?

**Gatozen** etxera. EAJk esan zuen ez zituela sekula Espainiako aurrekontuak onartuko Katalunian 155. artikulua indarrean jarraitzen zuen bitartean. Urtebete eman dute hori esaten, eta duela astebete babestu zituen aurrekontuak, emandako hitza errespetatu gabe. Horren aldeko argumentu argiak eman dituzte, hamaika arrazoi eta azalpen ere, ez naiz horretan sartuko, baina hitza jan dute.

**Sortuk** ere bere hitza jan du. ETAren amaierarekin batera, biktima guztien sufrimendua aintzat hartuko zuela adierazi zuen, baina Bilbon maiatzaren 19an egin zuen ekitaldian, ETako kide ohiak omendu eta alde bakarreko biktimez soilik hitz egin zuen. Bestaldeko biktima guztiak ahaztu zitzaizkion, antza.

Hitza, jaun-andreok, mendeetan zehar euskaldunon izaeraren ezaugarri nagusia izan dena, desagerrarazi egin dute politikariek. Ez dut uste demokrazia hau merezi dugunik. ■

---

 TESTUA: ITZIAR LARRAÑAGA
 

---



## CAFELAT

*Eskuzko kafe makina. Cafela. 200 euro (Kickstarter bidez).*

Crowdfunding bidez dirua batzen dabil proiektua. Kafea egiteko egungo gailu digitalen orde, eskuen laguntzarekin dabilen makina garatu dute. Kapsulak alde batera utziz, kafe-aleak xigortu eta ur beroa botata egiten du kafea, estilo tradizionalagoan. Presio neurgailua dakar, kafea 9 bar neurri optimoan ateratzeko.

## HUAWEI P20 PRO

*Smartphonea. Huawei. 799 euro.*

Huawei P20 Pro mugikorrak 6,1 hazbeteko pantaila handia dauka, 4.000 mAh-ko bateria, hiru kamera, 6 GB-ko RAM, Kirin 970 prozesatzailea... Hau da, goi-gamako smartphonea da. Adituen eta erabiltzaileen kritika onak jaso ditu merkaturatu eta segituan, bereziki, eskaintzen duen argazki kalitatea nabarmenduz.

## TADO V2

*Aire girotu adimenduna. Tado. 179 euro.*

Aire girotua mugikorraren bidez kontrolatzeko aukera eskaintzen du aparatu horrek. Smartphonean instalatzen den aplikazio bati esker, etxean ez egonda ere, aire girotua aktibatzei aukera dago, etxeko wifi sistemaren bidez. Gailuak eguraldia kontsultatu dezake, bere funtzionamendua, espero den tenperaturara egokituz.



# Laranja pasa

---

## EGILEA: TXATXILIPURDI

ARGAZKIAK: TXATXILIPURDI

---

ARGAZKIJETAN: ARRASATEKO SANTA MARINAKO  
UDAL LUDOTEKAKO HAURRAK

Aste honetan ere Arrasateko Santa Marinako Udal Ludotekako haurrek Monterron parkean egindako betiko jolas kooperatibo bat aurkeztu nahi dizuegu.

---


## Materiala

- Laranja bat.

---

## Nola egin

- 1. Jarri borobilean** Partaide guztiak borobilean jarriko dira. Zenbat eta partaide gehiago, orduan eta aberatsagoa eta zailagoa izango da jolasa.
- 2. Bekokiarekin** Fruta bat aukeratu, ez oso handia; guk laranja aukeratu genuen. Helburua da taldeko kide batek besteari laranja pasatzea lurrera erori gabe eta eskuak ez diren gorputzeko beste atal batzuk erabilita. Bekokia da aukera bat.
- 3. Lepoarekin** Bekokiaz gain, beste aukera batzuk ere badaude; lepoa, esaterako. Denon artean erabaki genituen arauak.
- 4. Tranpa** Eskuak ezin dira erabili. Ea lortzen duzuen borobil osoa osatzea!







**Luka Goitia Osinaga**

Oñati. 3,450 kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Lide eta Gorka. Argazkian, Luka, amaren besoetan.



**Lur Onaindia Arakistain**

Ziortza-Bolibar. 4,100 kilo. Maiatzaren 23a. Gurasoak: Ane eta Sergio. Argazkian, Lur, gurasoekin.



**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri PUNTUA eta Interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz  
GOIENAREN egoitzara.

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,**

**zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako,  
**OPARIA\***  
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola z/g ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30





\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



Gurasoen premiak asetzeko gunea  
**guraso.eus**

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarriketak.





Aitziber Vesga Artola (Azkoitia)

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAKITZEN

## Izen-ematea

Ekainaren 4tik 15era

## Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91 • 664 277 592

Zergatik aukeratu zenuen Sareko Informatika Sistemen administrazio heziketa zikloa? Eta, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Informatika mundua asko gustatzen zaidanez beroni loturiko heziketa zikloren bat egitea nuen pentsatua, eta arlo hau orokortasunean gehien lantzen zuen heziketa zikloa, sareko informatika sistemen administrazioa zela iruditu zitzaidan, eta horregatik berau egitea erabaki nuen.

Heziketa zikloa egin aurretik ingeniariatza informatikoa egiten 2 urte pasa nituen Mondragon Unibertsitatean. Jadanik ezaguna nuen bertan erabiltzen duten metodologia eta ikasteko sistema egokia iruditzen zaidanez bertan jarraitzea erabaki nuen. Horretaz gain, eskaintzen duten DUAL sistemak ere asko erakarri ninduen.

**Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?**

Erronka hauen bidez lanean hasterakoan aurkitu ditzakegun arazo edo proiektuak jartzen dizkigute, esaterako, hainbat ordenagailu eman dizkiguten, bakoitzak arazo ezberdin batekin eta guk arazo horiei irtenbidea aurkitu behar genien. Beste erronka bat, enpresa ikasgaiaren sorturiko geure enpresari web horri bat sortzea izan zen. Era berean, sare korporatibo bateko erabiltzaileentzat internetera sartzeko sarbide gisa balio duen proxy baten instalazio eta konfigurazioa ere egin genuen, edota enpresa batek toki ezberdinetan izan ditzakeen zerbitzarien arteko lotura, bertako datuak jasotzeko datu base bat sortuz eta enpresa ezagutarazteko web horri bat sortuz.

**Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?**

Oso positiboki baloratuko nuke 2 urte hauetako esperientzia.